

gaiak

maiatz aldizkaria

abtx'08

euskara

gasteiz & euskalkiak

GEU

2,40 €

2008ko otsaila

181

musika

musika kale kantoietan

blues-aren historia

historia


matias jose maestro

(1766-1835)

bidaia

tsuneaki kurosawa

**NESTOR
BASTERRETXEA**
eskultorea



DBH

Beste hezkuntza-etapa bat hasiko duzu

Garrantzitsua da ondo aukeratzea



DIOCESANAS

EDUCACION SECUNDARIA Y FORMACION PROFESIONAL
BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETA



asteazken guztietan 18:00etatik aurrera
ARRIAGA eta NIEVES CANON

jardunaldi irekiak


Aurre-inskripzioa egiteko
epearen aurreko asteetan



Diocesanasen Hezkuntz-Eskaintza 2008 - 2009 ikasturtea

	Derrigorrezko Hezkuntza		Derrigorrezkoaren ondoko Hezkuntza		
	D.B.H.	LANBIDE HASTAPENA	BATXILERGOA	ERDI MAILAKO L.H.ko HEZIKETA ZIKLOAK	GOI MAILAKO L.H.ko HEZIKETA ZIKLOAK
ARRIAGA	A, B eta D erduetan	Soldadurako Langilea	Zientziak eta Teknologia Batxilergoa (A eta D erduetan)	- Makineria eta Linea-eroanbideen Instalazio eta Mantenimendu Elektromekanikoa - Ibilgailuen Elektromekanika	- Informatika Aplikazioen Garapena E-G - Informatika Sistemen Administrazioa - Produktu Elektronikoen Garapena - Automozioa - Industri Ekipoen Mantenimendua - Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak (Elektronika) - Telekomunikabide eta Informatika Sistemak
MOLINUEVO		Merkataritza Laguntzailea	Giza eta Gizarte Zientzen Batxilergoa (A eta D erduetan)	- Administrazio Kudeaketa E-G - Ile-Apainketa - Erizaintzaren Laguntza G	- Administrazio eta Finantzak E-G - Garraioaren Kudeaketa - Merkataritza Kudeaketa eta Marketina G - Estetika - Gizarte Integrazioa
NIEVES CANO	A, B eta D erduetan	Metal-arotzeriako langilea	Zientziak eta Teknologia Batxilergoa (A eta D erduetan)	- Mekanizazioa E-G - Informatika Sistemen Ustiapena	- Mekanizazio Bidezko Produkzioa E-G - Proiektu Mekanikoen Garapena - Diagnosi Klinikoen Laborategia
MENDI-ZORROTZA				- Jatetxe eta Tabernako Zerbitzuak - Sukaldaritza - Pastelgintza eta Okintza	G Gauzezkoa E-G Egunezkoa eta gauzezkoa A eta D erduetan eskaintzen diren Zikloak

- L.H.ko Elizbarrutiko Lanaren Ikastetxea
- Lanbide Heziketa osoko Ikastetxea
- HEZKUNTZA SAILArenkin hitzartutako Ikastetxea
- JUSTIZIA ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILAren babespeko Ikastetxea.
- ARABAKO LHko PARTZUERGOKO kide
- HOBETUZ eta INEMek homologaturiko Ikastetxea
- LANBIDEren Ikastetxe laguntzailea
- HETELera eta Kristau Eskolara elkartutako Ikastetxea
- CAJA VITAL KUTXAren Gizarte Ekintzaren baitakoa



sumarioa 181

geupertsonaia

nestor basterretxea eskultorea 7-13

geugaia

maiatz aldizkariak 26 urte 16-18

bertsolaritza

abtx'08 19

musika

musika kale kantoietan 22-23

blues-aren historia 25-27

bidaia

tsuneaki kurosawa 28-30

historia

matias jose maestro (1766-1835), 31-33

ahaztutako gasteiztarra

[jesus glz de zarate]

euskara

gasteiz euskalkien sorguneetako bat? 34-35

beste:

literatura dosi txikitan 37

geusex 38

gaztezulo: neskak, mutilak eta bideojokoak 20

agenda, kaletik, idazleen zutabea, euskaltasunean,
araba bixotzian, historia zutabea, errezeta eta umorea



7-13



25-27



28-30




31-33

GEU

GEU aldizkaria | GEU Elkartaren ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkariako taldeak egina, bideratua eta kudeatua | erredakzioa: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | geugaste@grn.es | geu@geugasteiz.com | www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate | aldizkariako batzordea: david alvez, edurne begiristain, josune veleiz de mendizabal, edorta sanz eta estitxu breñas | kazetariak: josune veleiz de mendizabal, edurne

begiristain, ainhoa arriaga eta naraa cuesta | azaleko argazkia: edorta sanz | argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orraketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak: geu aldizkaria eta aztiri | maketa: dalvez | umorea & araba bixotzian: iñigo sarasola | kolaboratzaileak ale honetan: kike fdz. de pinedo, gerardo markuleta, mikel ayerbe, erlantz urtasun, ana ramirez de okariz (emaize sexologia zentroa), diocesanas-mendizabaltzako ostaralitza eskola eta gaztezulo | publizitatea: idoia breñas, geu aldizkaria | sustapen-harpidetza saila: geu aldizkaria | harpidetza-publizitate laguntzaileak: edurne begiristain | inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitako enantziakun.



www.geugasteiz.com

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

zeregineuskaraz [otsaila]



GEU ELKARTEA

GEUREKIN MENDIRA

otsailak 17, igandea
CASTILLETE (1038 m.)
[datu+: OBARENES MENDIAK /
pankorbo ingura]
goizeko irteera
irteera: loaina plazatik / kotxez
ordua: 9:00
arduradunak: kike (945140158)
geurekinmendira@gmail.com

KULTUR ERROTA

otsailak 19, astearte
DIAPORAMA: EH-LAPONIA
(mendiguren-nordkapp)
BIZIKLETAZ
aitor fdz de ortegaren eskutik
parral tabernan, 20:30



IRAKURLE KLUBA

otsailak 28, osteguna
ARANTXA URRETABIZKAIA,
KOADERNO GORRIA, EREIN 1998

apirilak 3, osteguna

GEORGE ORWELL, 1984,
TXALAPARTA 2007

hikaateneoan, pintore kalea 13,
20:00

kontaktua: iban.zaldua@ehu.es

www.geugasteiz.com
geuelkarte@grn.es /
945222153

BISITALDI GIDATUAK EUSKARAZ

MONTEHERMOSO KULTURUNEA. ERAKUSKETAK

asteazkenero, 19:30 (ez da
beharrezkoa deitzea)
taldeak: astearte & ostiraletan, 18:00
(aurretik erreserba eginez)
945161830
HASERREAREN BEGIRADA.
maiatzaren 4ra arte
PASAHITZAK 3: feminitatea
eztabaidatu. maiatzaren 18ra arte
www.montehermoso.net

ARTIUM: ERAKUSKETEN BISITALDI GIDATUAK

asteazken, larunbat eta
igandero, 11:30
doan. plaza mugatuak

ARTIUM: TALDEENTZAKO BISITALDI GIDATUAK

derrigorrezkoa aldeztu aurretik
erreserba egitea (73 euro)

ARTIUM: FAMILIENTZAKO BISITA GIDATUAK

larunbat & igandeak: 12:30-13:15
5-11 urte bitarteko umeentzat,
helduek lagunduta
doan. plaza mugatuak

info + erreserbak: 945209010
www.artium.org



hilabete honetan gomendatzen
dugu...

MUGAKO BEGIRADAK ERAKUSKETA

zinea egin eta ulertzeko era berri
baten inguruko hausnarketa,
estatuko bost zuzendari
interesgarrienetakoen eskutik: jaimen
rosales, luis alejandro berdejo, isaki
lacuesta, fernando franco eta leon
siminiani
otsailak 8-martxoak 31
atari aretoan
artium&neff&pantalla partida

ANDRA MARI KATEDRALA

945255135
www.catedralvitoria.com

GASTEIZKO ERDI AROKO HARRESIA

erreserbak: andramari katedralaren
bisitarien zentroan / 945 255 135
4 bisita eguneko (iraupena:
ordubete): 11:15, 12:45; 17:15, 18:45
2 euro pertsonako

IRUÑA-VELEIA

945403044 / 652720947
www.veleia.com

GATZ HARANA. GESALTZA AÑANA

astelehenetik igandera
(jaiegunak barne), 11:00 / 12:00 /
13:00 / 16:00 / 17:00 / 18:00
bisitaldia euskaraz: 10 lagun baino
gehiagoko taldeak
helduak: 3 euro / lagundutako
haurrak: dohaiarik / taldeak: euro 1
945351111
www.vallesalado.net



ARTIUM & UMEAK

ARTIUM TXIKIA

(igandeak)
3-5 urte bitarteko haurrentzat,
helduek lagunduta
12:15-13:30
otsailak 3: laukia mozorrotu egin da
otsailak 10: koloreen ur-jauzia
otsailak 17: lerroak hegan doaz
otsailak 24: nor bizi da hemen?

GOIZEAN ARTIUMEN

(igandeak)
5-11 urte bitarteko haurrentzat,
helduek lagunduta
12:00-13:30
otsailak 3: herri izatetik hiri izatera
otsailak 10: izaki bizien etxea
otsailak 17: koloreak argitzen nau
otsailak 24: puntua eta kaketxa,
astindu mototsa

HAURRENTZAKO ERAKUSKETAK


Otsailaren 3ra arte
GUZTIOK, ABERE

945209010
www.artium.org

TXIKIART

MONTEHERMOSO KULTURUNEA

larunbatero, 18:00
4-9 urte bitarteko umeentzako
tailerrak
945161830
www.montehermoso.net



ABTX'08

kanporaketak

otsailak 23, laudion, basalarrina
elkartean.

inaki viñaspre, juan mari juaristi, izar
mendiguren, serapio lopez, ander
solozabal eta ekaitz samaniego
otsailak 29, lantziegoko luis r
upategian

asier otamendi, zigor enbeita, ruben
sanchez, felipe zelaia, alberto
martinez "betto", eta jagoba apaolaza
martxoak 1, agurainen
oihane perea, manex agirre, rikardo
gonzalez de durana, andere
arriolabengoa, iker agirre eta beñat
goitia

hiru kanporaketak 20:00etan hasiko
diren afari goxoan ondoren izango
dira. izena emateko: 675707971 /
araba@bertsozale.com

finalerdiak

martxoak 9, gopegin, 17:00,
kultur etxean
martxoak 16, aramaion, 17:00,
kultur etxean

finala

apirilak 5, gasteizen, 17:00,
principal antzokian
www.bertsozale.com

IX. JON AIZPURI BERTSO TXAPELKETA & EUSKAL KANTA LEHIAKETA

FINALA

otsailak 9, 19:30, dendaraban
www.j-obero.es

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutako egitasmoa

KONTZERTU DIDAKTIKOA: EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA

BABAR ELEFANTETXIKIAREN ISTORIA
principal antzokian, otsailak 15,
19:00. +4 urte / 6 euro
gasteizko udalaren kultur plangintza
& programazio zerbitzua
www.vitoria-gasteiz.org

FAMILIARENTZAKO ANTZERKIA: HANDITAN

glu-glu produkzioak. +6 urte
otsailak 17, 18:00

TXOROLEKU. ANTZERKIA

(florida parkean)
DORO: 'ARRAPIO'
otsailak 17, 11:30; 13:00
+ 4 urte sarrerak: 2 euro. goiuri jauregia
(villa suso), emanaldiaren asteko
astelehenetik ostiralera (16:00-20:00)
www.vitoria-gasteiz.org

IPUIN EROTIKOEK 13. LEHIAKETA

epea: apirilak 11
info+: euskarabila (basauriko
euskara elkarte)
euskarabila@topagunea.com

ZINEMASTEIA 2008

otsailak 25-martxoak 1
caja vital kutxa fundazioaren aretoa
(bake kalea, 5 - dendaraba)
• otsailak 25: 16:30 eta 22:00
• otsailak 27tik 29ra: 12:00, 16:30,
19:00 eta 22:00
• martxoak 1: 19:00etatik aurrera
• haurrentzako goizeko emanaldiak
asteartean, asteazkenean eta
ostegunean, 10:00
• 'gutariko bat' saria - martxoak 1,
larunbata, 20:00
sarreraren salmenta: 3 euro / euro 1
(caja vital kutxaren txartelekina) / 12
orduko doako emanaldia
www.kreared.com

MUSIKA KALE KANTOIETAN

otsailaren 10ean, igandea, Hala
Bedi tabernan, PETTI
otsailaren 12an, asteartea,
Parral tabernan, MAK
otsailaren 14an, osteguna, Gora
tabernan, SAGARROI
20:30. ika & 3kortxea (hala bedi)

TXORIONAK!!

20 urte okupatzen 25 urte
komunikatzen
gaztetxea eta hala bedi irratien
urteurrenak
adi egitarauari
www.txorionak.org

GAUEKOAK



KONTZERTUA: KEN ZAZPI

otsailak 8, azkena aretoan, 21:30
geu elkartearen babesarekin
sarrerak salgai: gong diskak, disco
laser eta zuloa. 5 / 10 euro
(30 urtetik gorakoek)

GAUEKO BERTSOAK

otsailak 15, topaketa gela, 22:30
arabako bertsozale elkartearen
eskutik
doan

BERTSO TRANPAK

otsailak 22, aldabe gizarte
etxeko antzokian, 21:00
doan

AIN_1

otsailak 29, aldabe gizarte
etxeko antzokian, 21:00
doan

IRUDITXOKOA

otsailak 1, 8, 15, 22, marxoak 7,
14, 20:00, luis ajuria aretoan
orhum zine klubareb eskutik
doan

LANTEGIAK

euskal dantzak
urtarrilak 11, 18, 25; otsailak 8, 15,
22, 29; martxoak 7, 14, 28
5 euro
txalaparta
otsailak 9, 16, 23; martxoak 1
5 euro
fimo
urtarrilak 26; otsailak 9, 16, 23;
martxoak 1
5 euro
izena ematea : aldabe gizarte etxean
www.vitoria-gasteiz.org

LIBURUTEGI BIZIDUNAK

[gonbit-txartelak: dagokion gizarte
etxeko liburutegian, jarduera hasi
baino astebete lehenagotik]

otsailak 18
abetsuko. 18:00
zuekin kantetan. ipuin kontalaria
5-8 urte
gonbit-txartela behar da

otsailak 11
aldabe. 18:00
entzun, entzun txikia. ipuin
kontalaria
3-5 urte
gonbit-txartela behar da

otsailak 4
arana. 18:00
mozorroaren jaia. ipuin kontalaria
5-9 urte
gonbit-txartela behar da

otsailak 1-18
arana
esaera zaharren lehiaketa
helduak
elebiduna

otsailak 4-18
arana
asmakizun lehiaketa
8-14 urte
elebiduna

otsailak 14
ariznabarra. 18:00
kontu kontari kantu kantari. ipuin
kontalaria
5-9 urte
gonbit-txartela behar da

otsailak 27
arriaga. 19:00
euskara sencilloaren manifestoa.
antzerkia
helduak
gonbit-txartela behar da

otsailak 6
el pilar. 19:00
patxi usobiaga: ur sakonetako
bakardadea. dokumentala
helduak
gonbit-txartela behar da

otsailak 28
el pilar. 18:00
baobab: ipuin afrikarrak. ipuin
kontalaria
6-10 urte
gonbit-txartela behar da

otsailak 1-14
el pilar
asmatu zein liburu den. lantegia
helduak
elebiduna



Bibliotecas Animadas
Liburutegi Bizidunak
enero-marzo
2008
urtarrila-martxoa

otsailak 7
hegoalde. 18:30
esku txotxongiloen tailerra
+ 3 urte
elebiduna

otsailak 15
hegoalde. 19:30
izena duen guztia da. jose mari
karrere. ipuin kontalaria
helduak
gonbit-txartela behar da

otsailak 17
iparralde. 11:30
esaldi bat, esaldi bi... kontu kontari.
ipuin kontalaria
4-6 urte
gonbit-txartela behar da

otsailak 26
iparralde. 19:30
karmele jaio eta bere lana.
solasaldia
helduak
gonbit-txartela behar da

otsailak 1
judimendi. 18:00
mozorrota eta ipuin bat kontatzen
dut. lantegia
adin guztiak
elebiduna

otsailak 1-18
judimendi
esaera zaharren lehiaketa
helduak
elebiduna

otsailak 4-18
judimendi
asmakizun lehiaketa
8-14 urte
elebiduna

otsailak 2, 9, 16
lakua. 11:15
txikiak liburutegira. lehiaketa
4-6 urte
gonbit-txartela behar da

otsailak 11
lakua. 18:00
griot. jon arretxe. solasaldia
helduak
gonbit-txartela behar da


www.vitoria-gasteiz.org/bibliotecas

GEU

laguntzailea:

GIZARTE EKINTZA
Obra Social
Caja Vital Vital Kutxa

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (Korre), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tl: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

LA RIOJANA
on egin!!! jatetxea

bokatak,
pintxoak, kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33
tfnoa. 945 25 02 39

Zure denda erotikoa

SEX **PITILIN GORRI**

Sexua
euskaraz
bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60
DONOSTIA OIARTZUN

DIBUtec

Paper Berezioak
Arte Ederretarako Materiala
Ink jet original en birziklatuak
Bulego Materiala
Enkoadernazioak
Plastifikazioak
Kopiatuak
Komiseten Estampaketak

azkarprint
Imprenta / argintutegia
Edozein inprimaketara
mota.

• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ INPRIMATEGIA

Erraman
Argazki - Estudioa

Heradio Fournier, 23
(laborategia)
945 13 71 02

Askatasun kalea, 5
945 26 19 91

Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldua
• Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldieran plaza
GASTEIZ

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna
zure esku"

El Clarete
jatetxea


unai eta patri fdz. de retana

zerkabarren kalea, 18
gasteiz 945 263 874

KIDE
APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

**NESTOR
BASTERRETxea,
eskultorea**



***“Ez naiz artista bakarra
memoria historikoaren
kontuagatik arduratzen dena,
baina askorik ere ez dago”***

Nestor Basterretxea
(Bermeo, 1924) eskultore
eta margolariak esku zabalik
jaso du GEU bere
Jaizkibeleko etxean
(Hondarribian). 'Crónica
errante y una miscelánea' du
artista bermeotarrak bere
bizitza oparoaren kontaketa
autobiografikoa. "Bi guda
bizi izan ditut, eta hainbat
kontu -dio-. Nire lagunek
abenturazko bizitza dudala
diote". Hamabi urterekin
utzi zuen Basterretxeak,
erbesteak hala behartuta,
Euskal Herria; 1951 n berriz
buelatu zen euskal kultura,
historia eta artearen figura
garrantzitsuenetarikoa
bilakatuko zen gizona.

t. josune verez de mendizabal

a. edorta sanz

Lana egiteari ezin utziz dihardu gau eta egun Nestor Basterretxeak. "Onartzen dut 84 urte izan arren gaztetasunez bizitzen ari naitela harrituta naukan sorkuntzarako bulkada", aitortzen du harrotasunez. Bere lan berriena Kutxa- Espazioan (Donostian) ikusgai da otsailaren 6tik aurrera. "Carmelo Ortiz de Elgea arabar margolariarekin batera egin dugun erakusketa da; Carmelo niretzat egun Europa osoan dagoen margolarien onenetarikoa da". Bere lanak ere Bermeoko kaleetan ikusgai dira, estalperik gabeko museoan den erakusketan.

'Crónica errante y una miscelánea' biografikiak umetako gogoetak ditu abiapuntu, atzerrialdia, alegia. Nolakoak izan ziren garai horiek?

Frankistak Bermeora heldu zirenean nik 12 urte nituen. Gure baserria okupatu zuten... 37 urtez okupatua egon zena gainera... Guk Donibane Lohitzunera alde egin genuen baina han denbora gutxi iraun genuen. Bi urteren buruan Parisera bidaiatu behar izan genuen. Bertan gogoratzen dut Artearen Erakusketa Mundiala izaten ari zela eta 'España Republicana' pabilioian Picassoren 'Guernica' ikusi nuela lehenengoz... Hamalau urte nituen eta unibertsalitate adierazpen horrek iratzarri ninduen... Laster hasi zen Bigarren Mundu Gerra eta Frantziatik ihes egin behar izan genuen.

Poutik Marsellara joan ginen gure aitak esanda. Bi hilabetez zain egon behar izan genuen itsasontzi bat hartu arte. Hamabost eguneko buruan Buenos Airesen egotea espero genuen. Baina bidaia hura exodo luze bat bilakatu zen. Dakarreko badian, frantses kolonia zenean, lau hilabete egon baikin... Gogoratzen dut marinela korsiarrek matxinatu egin zirela euren emakumeekin amodioa egin gabe ezin zirelako hainbeste denbora bizi aldarrikatuz... altxamen du bortitza izan zen hura... Bestetik, itsasontzian judu belgiarrak, errusiarrak, euskaldunak eta bestelako errefuxiatuak ere baziren. Hainbeste denbora egon ginen Dakarreko badian ezen juduek antzezlanak

ARTISTA ETA BERE LANA. ERROTIK IRUDIRA

Nestorri entzuteak bere bizitzaren nondik norakoak asmatzen laguntzen du. Bidaian jartzen gaitu. Bere lanei erreparatuz ere bere sena senti daiteke. Adinak ez du Basterretxearen sortze grina eten. Artista gazteekiko distantziak azaltzen du bere lanaren filosofia. Zergatia badu horrek guztiak. Arantzazuko hormairudiek (1952-1956), baita 'Euskal Kosmologia' (1979) eskultura sailak ere, berea duten bezala. Azken honetan, 23 egurrezko eskultura gauzatu zituen bermeotarrak bere ibilbidean "neketsuentzat" jotzen duen lanean. Bi urte baino gehiago eman zituen honetan aita Barandiaranen laguntzaz baliatuta. Hitzaren irudia islatu zuen Basterretxeak orduan. Barandiaranen lan historiko eta kulturalari esker Basterretxeak mitologiaren jainkotasunari forma eman zion, ikonografia konplexu bat sortuz.

Egun ere bere lan egiteko irmotasunak tinko dirau. "Jendeak dio eskultorea naizela baina nik ez diot sekulan margotzeari utzi", nabarmentzen du serio. Elkarriketa bukatzeaz dago baina agurtu baino lehen zera onartzen du: "oso lo gutxi egiten dut gauzez. Hiru eta bost ordu artean soilik", eta barre egiten du. Esnatu eta tailerrean lanean aritzen dela dio harro. "Gaur bertan hiru collage egin ditut". Tailer-museoan sartzean eskuarekin seinalatu ditu, "horra hor bart egindakoak". Kolorezkoak, abstraktuak, biziak dira. Eskulturak dira baserriko behealde txukuntasunez jantzen dutenak. "Ikastoletatik umeak datoz zenbaitetan bisitan -eta barre egiten du gogoratzean-. Txiki-txikiak dira (eskuarekin egiten du keinua), pilo bat, denak lurrean eserita, formal-formal..., baina zer ulertuko dute beraiek honetaz?". Barrurago, atzealdean, biltegian koadroak eta grabatuak pilatzen dira. Biziaz beteriko leku gabeko espazioa. Bizia arnasten duen ibilbide oparoa.

eskaintzen zituzten untziaren brankan, errusiarrek baleta egiten zuten eta euskaldunek defentsa-gabezia horri aurre egiteko 'agur jauna' abesten zuten... oso egoera surrealista izan zen hura, fantasiazkoa... Portugaleko itsasontzi batek atera gintuen hortik eta bidaia Mexikoko portuan eta La Habanan geldituneak eginez jarraitu genuen. Azkenik, Buenos Airesera iritsi ginen.



Hamabost eguneko bidaia zena 465 eguneko bilakatu zen. Exodo horrek bultzatu nau nagusiki liburu hau idaztera.

Argentinan ezarri zenuten ondorengo urteetan etxea. Han hasi zinen artista, margolari bilakatzen...

Gogoratzen dut Buenos Airesera ailegatu eta bertan senti zitekeen bakea eta eskuza-

baltasuna... Gubernuko presidentea euskaldunen semea zen eta tratu berezia eman zigun hara heldu ginenean. Zer nekien egiten galdetu zidaten eta nik margotzen nekiela erantzun nuen. Nestlé konpainian hasi nintzen lanean publizitate arloan. Suitzarrak oso zorrotzak dira orduarekin eta zortzietan hasi behar genuen lanean egunero, ni ez naiz oso puntual berriz... (barre

egiten du). Hori dela eta, egun batean bazkari dotore batera gonbidatu ninduten, sekulakoa... Bazkaria hasi orduko konpainian kontratatua nengoen baina postreetan, ordea, "kale gordinean" nengoela jakinarazi zidaten... (barre egiten jarraitu du). Hala ere, azkenean fabore handia egin zidaten eta etxetik margotzen hasi nintzen... Suitzarrek, erlojuaren sortzaileek, ezin



zuten puntualitate falta hori onartu, nahiz eta nik ulertarazten nien sormena goizeko hamarretan etortzen zitzaidala...

Jorge Oteiza erbestean zeundela, Argentinan hain zuzen, ezagutu zenuen lehendabizi. Nolakoa izan zen topaketa hura?

Jorge Kolonbiatik etorria zen orduan. Han zegoen errefuxiatu eta Kolonbiatik bota egin zuten bertako kulturako ministroaren aurka mintzateagatik... diru gabe zebilen garai hartan... Hilentzako aurpegi-moldeak egiten zituen, baina sekulan ez zuen kobratzen... Hildakoek diru asko omen zuten eta han zituzten familiakide guztiak testamenuaren zain, baina hildakoak dirua beti mojei uzten zien... (irribarre egiten du) eta horregatik familiak ez zuen sosik ikusten, ezta Jorgek ere...

Orduan sortu zen zuen arteko adiskidetasuna. Bizitza osoa iraungo zuena. Jorgek Madrilera bidaiatzea erabaki zuen orduan. 1951 urtean bueltatu zinen zu Euskal Herrira eta berak animatu zintuen Arantzazuko hormen lehiaketara aurkeztera. Irabazle ere suertatu zinen. Kontaguzu.

Jorgeren ideiek sentsazioa sortu zuten jausitako Espania horretan, frankista, inperialista eta suntsitua zen Espainian. Artea faxismoaren arauetara derrigortua zegoen eta Jorgek esaldi bakar bat esan zuen; hark guztia aztoratu zuen: "Artearen lehengaia espazioa da". Hitzaldi batean esan zuen hau eta bertan zegoen Madrilen bizi zen nafar industriari handi batek, baita Arantzazuko lehiaketa irabazi berri zuten arkitektoek ere entzun zuten. Hauek izango ziren gerora basilika egiteko lehiaketaz arduratuko zirenak.

Gertaera horretaz urtebete pasa eta gero ni ezkondu nintzen eta Espainiara bidaiatu nuen ezkonbidaian. Egin nuen lehendabiziko gauza Oteiza bisitatzea izan zen. Berak animatu ninduen hormen lehiaketara apuntatza. Baina ni ejertzitoko iheslaria nintzen eta baimen berezia nuen. 30 egun soilik egon nintekeen Espainian. Hala ere,

geratu nintzen baina Afrikara eraman ninduten. Bederatzi hilabetez protestan egon eta gero askatu ninduten eta Arantzazuko Basilikan lanean hasi nintzen.

"OSO ONDO BEREZITU BEHAR DA OTEIZA GIZONA ETA OTEIZA ARTISTA ARTEAN. SORTZAILE BEZALA JENIO BAT ZEN. GIZAKI MODUAN KONTRAESANKORRA ETA ALDAKORRA"

"Oteiza da ezagutu dudana jenio bakarra", hauexek dira zure hitzak Jorge Oteizari buruz galdetzean. Zergatik dio hori Nestor Basterretxeak?

Oso ondo bereiztu behar da Oteiza gizona eta Oteiza artistaren artean. Artista eta sortzaile bezala nik, eta beste askok, jeniotzat dugu, eta jende inportante asko ezagutzen dut baina horietatik jenio bakarra Oteiza dela esatera ausartzen naiz. Gizaki bezala ordea, kontraesankorra zen, oso aldakorra... eta egia hura lehen pertsona konprobatu ahal izan nuen bere familia eta nirea Irunen elkarrekin bizi izan ginen hamaika urte horietan. Goiz batean esan zidan nekatuta zegoela guk bera jenio bat jotzeaz, bera gu bezalako pertsona zela. Egun bereko arratsaldeko zazpitan zerrenda bat egin zuen, zorrotza, historian egondako artistekin, han idatzi zituen ondorengo izenak: Cezanne, Picasso, Oteiza. Hori zen Jorge.

Oteizarekin izan zenuen adiskidetasun sakona dela eta, batek baino gehiagok pentsatu du bere ikaslea izan zinela. Baina ez zen inondik inora horrela izan, ezta?

Oso ondo ezagutzeko aukera izan nuen baina esan behar dut sekula ez zela maisu-irakasle izan harreman horretan. Ez zen zuzentzen edo aholkatzen ninduen gizona, baizik eta bere ereduarekin irakasten zuena. Bizikidetzatza horren ondorioz ordea garapen



bat sortu zen, deskubritu bainuen lerroek planoak eztandarazten zutela, hots, hirugarren dimentsio bat osatzen zutela. Eta hori eskulturarekin lanean arrazoi bakarra da.

Ibilbide artistikoa margotzen hasi zen Basterretxea, eta nahiz eta margolanak sekulan egiteari utzi ez, ondoren eskul-



turara jauzi egin zuen. Hala ere arkitektoa nahi zuen izan...

Bigarren batxilergoan nengoela Guda Zibilak eztanda egin zuen... nire artearekiko zaletasunak bete zuen arkitekturarekiko nuen nahia... San Telmon egin dut 2007an 'Volumetrías arquitectónicas' izeneko erakusketa, non bi arlo hauen arteko loturare-

kin lanean izan naizen.

Behin Euskal Herrian egonkortu zinela Gipuzkoako hainbat artistak (Oteiza, Chillida, Mendiburu, Ruiz Balerdi, Zumeta, Amable Arias, Sistiaga eta Basterretxea) Gaur taldea osatu zenuten 1966 urtean. Egitasmoak ez zuen espero zen ibilbide oparoa izan. Zeintzuk ziren helburuak?

Huts egindako ametsa izan al zen hura?

Oteizari berari inportanteentzat jotzen zituen artistak talde batean biltzea otu zitzaion. Lau talde zeuden, Bizkaian 'Hemen', Gipuzkoan 'Gaur', Araban 'Orain' eta 'Danok' Nafarroan. Horiek ziren urte horietako artearen egoera errealaren garapena. Ideia bikaina izan zen, beharrezkoa




zelako. Oteiza izan zen ideia hori baloratu zuena bereziki, baina gure izaera ez dago egin talde koherenteak osatzeko, antza. Eta laster sortu zen Oteiza eta Chillidaren arteko norgehiagoka. Horrek Gaur taldea banandu zuen, baita gainontzeko herrialde- etako taldeak desagertzera eraman ere.

Urte batzuk beranduago, 1968 urtean, zinemagintzan eta Euskal Herriko historian ekoiztu den zine lan interesgarrienetako bat gauzatu zenuen Fernando Larruquert zuzendariarekin batera, 'Ama Lur' filma, alegia.

Arkitekto bilakatu ezin izanak adierazpena lortzeko bide ezberdinak frogatzera eraman ninduen..., artistak bere burua azaltzeko erabil dezakeen edozein baliabide..., eta zinea oso eraginkorra iruditu zitzaidan gauzak kontatzeko... Lehenik eta behin Fernando Larruquert eta biok zenbait film labur ekoiztu genituen. Horietako bat 'Pelota Vasca' izan zen, euskal pilotarien edertasuna, baita gure herriarena ere, kontatu nahi genuen. Lehen Sari Nazional irabazi genuen harekin eta horrek animatu gintuen aurrera jarraitzera. Hala ere, film berrian pentsatzen gindoazen heinean edertasunaren gaia txiki geratu zitzaigun. Izan ere, diktadura garaia zen hura eta edertasunaz gain bestelako gauzak zeuden komentatzeko beharrean. Laster ulertu genuen euskaldunok zutik bizi ginela eta ez Espainian jende askok pentsatzen zuen moduan mapatik ezabatuak. Eta modu horretan, oso aktiboa eta larria zen zentsura bati aurre eginez azkenean Euskal Herriak behar zuen egia gauzatu genuen film honen bitartez; herriaren Izatearen baieztapena zena, hain justu.

“LASTER ULERTU GENUEN EUSKALDUNOK ZUTIK BIZI GINELA ETA EZ ESPAINIAN JENDE ASKOK PENTSATZEN ZUEN MODUAN MAPATIK EZABATUAK. HORRELA SORTU ZEN AMA LUR”



Azken Durangoko azokan, dvd formatuan berreskuratu egin da, 40 urte beranduago, ahaztuta al zegoen?

Duela 40 urte aurrera egin nahian jende askok laguntza ekonomikoa, norberak ahal zuena, eskaini zigun eta zoragarria izan zen. Horri esker atera zen aurrera filma. Orain, 40 urte beranduago, norbaitek 'Ama Lur' hartu eta errekupeatu egin du. Honengatik izugarri eskertzen diot Gara egunkariari filma berrargitaratu izana, belaunaldi berriek ez baitzuten ezagutzen eta oso ondo jaso dute.

Memoria historikoa ez dela existitzen nabarmendu duzu zenbaitetan “eta horrek garai bateko faxistak egungo

demokratak bilakatzeko arriskua” duela esan ere.

Egun, eta berandu bada ere, azkenik memoria historikoa exijitu egin da... egun errekupeatzen ari diren gorpu horiek guztiak, fusilatuak izan zirenak... ikuskizun lotsagarria izan zen... bizitzan gertaeren egia ezagutu behar da...

Hortaz, arteak denboran eta historian zentzua izan behar duela pentsatzen duzu?


Arteak drama horiei erreferentzia egin diezaieke, noski. Saturrarango kartzelan preso egon ziren emakumeen omenezko eskultura egin nuen nik; eta egun batzuen buruan Langraizeko kartzelan fusilatu eta torturatu

zituzten homosexualen oroimenez ere beste bat ezarriko dut. Frankismoaren biktimen oroimenez Bilbon ere eskultura bat bada. Ez naiz artista bakarra memoria historikoaren kontuagatik arduratzen dena, baina askorik ere ez dago...

"SORTZAILE GAZTEEN ARTEAREKIKO ULERMENAK MODARI ERANTZUTEN DIO"

Zure lana zure buruarekiko "apustua" dela onartzen duzu. Zer bilatzen du zure obrak bada?

Artista eta bere lana elkarren arteko bi errealitate ezberdinak dira. Obretan zure gaitasun intelektuala eta sortzailea neurtzen duzun heinean zurekiko apustuan ari zara. Bestetik, obrek denboran zehar zure pertsonalitate aldakorra erregistratzen dute eta



horri esker gerora zure bizitza hobe ezagutu dezakezu.

Eta gaur egungo arteaz zein iritzi duzu? Artista gazte ugari daude. Euren obren jarraipena egiten al duzu?

Ez dago zalantzarik egun ikusizko informazio gehiegizkoa existitzen dela eta gazteak berritasunen zaleak direla. Informazio hori guztia euren gaitasunak hausnarketarako beharko luketen denbora oztopatzen duela pentsatzen dut. Euren artearekiko ulermenak modari erantzuten dio azken finean. Artista baten jarrera eta portaera diktadura batean edo gaur egungo egoeran oso ezberdinak izan daitezke. Herri honetan bizitako dramek ez baitute zerikusirik gaur egun gazteek dituzten ardura eta kexekin eta honek, azken finean, ondorio zuzena du artearen izaeran. Ez da kontua inor erruduntzat jotzea baina hori onartu behar da ■

URTARRILAREN 25ETIK-MAIATZAREN 4RA

montehermoso Fray Zacarias Martínez 2 01001 Vitoria-Gasteiz 945 16 18 30



LA MIRADA IRACUNDA HASIERREAREN BEGIRADA THE FURIOUS GAZE

Komisarioak **Xabier Arakistain + Maura Reilly**

Lida Abdul, Pilar Albarracín, Alice Anderson, Txaro Arrazola, Andrea Bowers, Kathe Burkhart, Loulou Cherinet, Dorothy Cross, Lara Favaretto, Coco Fusco, Chitra Ganesh, Caron Geary, Cristina Lucas, Tracey Moffatt, Yurie Nagashima, Itziar Okariz, Mireia Sallarès, Charlotte Schleiffert, A.L. Steiner, Sophie Whettnall.

► Otsailaren 21etik 24ra "berdintasunaren lilura artean" ikastaroa burutuko da kulturunean.
Informazio gehiago: www.montehermoso.net

Ken Follet-en omenez

Gasteiz literaturaren hiriburu bihurtu du Ken Follet-ek egun batez. Hots, 'World without end' liburuaren gaztelerazko edizioaren aurkezpen ofiziala egiteko Santa Maria katedrala aukeratu du idazle galestarrak. Hortaz, Gasteizko agintariek Ken Follet-en omenez bere figura irudikatzen duen eskultura jarri dute Buruileria plazan. Merezi al du nobelagileak horrelako omenaldirik?

t./a. ainhua arriaga & naraa cuesta

- 1.- Ken Follet-en obra ezagutzen zenuen azken liburu hau idatzi eta Gasteizera etorri aurretik?
- 2.- Zer deritzozu idazleari eskultura bat egitea?
- 3.- Eskultura norbaiti egitekotan, nori egingo zenioke?



Nestor Ezpeleta, langabetua

- 1.- Bai entzunda nuen. Ez dut liburua irakurri baina entzun, entzun dut.
- 2.- Ez nekien ezer. Ez nago oso informatuta honen inguruan, ez dakit, ezin dizuet ezer esan.
- 3.- Ez dakit zer esan... Inongo alderdi politikoei, hori seguru. Ez nago oso ados, hala ere, edonori estatua bat jartzearekin.



Nacho Barcia, saltzailea

- 1.- Bai, bai ezagutzen nuen. Ez ditut bere liburuak irakurri, baina bera oso ezaguna da.
- 2.- Egia esateko ez dakit... Badakit Gasteizentzat garrantzitsua dela, baina ez dakit beharrezkoa den, edo ondo gelditzen den...
- 3.- Nik inori ez nioke eskultura bat jarriko.



Idoia Gonzalez, garapenerako lankidetzaren arloko langilea

- 1.- Bai, orain dela hainbat urte deskubritu nuen 'Los pilares de la vida' liburuarekin eta gero berea den beste zer edo zer irakurri dut. Izugarri gustatu zitzaidan. Nire gogokoenetarikoa da dudarik gabe.
- 2.- Ez nekien eskultura bat egin diotenik, baina beno, ez zait gaizki iruditzen, baina ondo ere ez. Beno, esker ona egitearren, ondo iruditzen zait.
- 3.- Ez dakit... Gasteizkoa den eta merezi duen edozein pertsonari. Kanpokoak omentzen ditugun bezala, etxekoak ere omentu behar ditugu.

idazle zutabea

Gatz-ek dio

t. gerardo markuleta



Westy arrazako txakurkumea naiz, garbi nagoenean txuri-txuria, eta dagoeneko handitxoa. Egutero ateratzen naiz kalera, gutxienez hiru aldiz, eta beti-beti nire humanoren batekin.

Berdeguneak maite ditut, noski, baina gure etxetik hara ailegatzeko kale mordoa gurutzatu beharra dago. Eta txakurrontzat oso gauza zaila da kaleak zeharkatzen ikastea. Nik dagoeneko ezagutzen ditut kaleko zerrenda-txuridun-alfonbrak, eta inora mugitu gabe dabilen gizontxo argizkoa ere bai. Autorik ez badabil ere, ni guzti-guztietan gelditu eta jesarri egiten naiz, humanoaren agindurik jaso gabe ere.

"Eseri hor". Kotxeen ilara noiz amaituko, edo gizontxo berdea martxan noiz jarriko, gustuko dut zain egoten den jendearen konpainia. Oso jende jatorra ezagutzen da zebrabide eta semaforoetan. Gustuko dut, batez ere, presaka dabilenak eta sasoz daudenak kotxe artean korrika edo gizontxoa gorrit dagoela igaro direnean, hantxe gelditu irauten dugunon tropela: aita-amaren batzuk haurkotxearekin, atso-aguraren bat bastoiaz edo hanka zuri-dun bat muletarekin, behin edo behin norbait gorpil-aulkian..., eta nire humanoak eta biok zalaparta horren guztia erdian. Izugarri maite dut buila hori.

Nahiz eta, egia osorik esateko, marra zuridun alfonbren aldean, askoz maiteago ditudan nik semaforoak. Izan ere, humanoak lasaia egoten dira. Tartetxo bat egiten dute gizontxo berdearen zain, eta askotan niri kasu egiteko ere bai. Hori dela eta, horretan aginpidetza duen humanoari eskatu nahi diot, tarta itsusidun plaza konpontzetik gizontxo berderik sobratu bazaio, jar dezala mesedez Mateo de Moraza kalearen amaieran, Bancospañako bihurgunea baino lehentxeago.

Txakurtasunez, Gatz■

NAHIKARI GARCIA

MAITALE MOZKORREN BANKUEN INGURUA GASTEIZKO LEKURIK POLITENA DA

Datorren hilean 24 urte beteko ditu gasteiztar honek. Ikasten igaro ditu azkeneko bost urteak Nahikarik, marrazketa tekniko eta informatika ikasketak amaitu ditu, hain zuzen ere. Orain lan bila dabil. Zeregin neketsua egungo lan merkatuan dauden aukerak ikusita. Hala ere, ez du galtzen lagunekin egoteko eta bizitzaz gozatzeko aukera. Neska lasaia bada ere, barnean daraman jenioa ateratzen duenean hobe hurbil ez gotea.

t. naroa cuesta a. edorta sanz

Tabernari lanetan aritu zara... gasteiztarrok gehien edaten dugun edaria?

Egoeraren arabera aukera izaten da. Asteazkenean zehar kafesneak dira ohikoena eta asteburuetan kubata asko jartzen dira.

Zure edaririk gustukoena? Erregaliz eta menda infusioak.

Gasteizko parranda, non?

Kutxi eta Mateo Moraza kaletik irteten naiz normalean.

Lan egindako tabernetara joaten zara?

Normalean ez. Ez dute nire giroarekin bat egiten.

Gasteizen ez bada, non biziko zinateke?

Holanda hiriren batean. Hiri modernoak eta kosmopolitak dira; aniztasuna nonahi aurki daiteke.

Gasteizek duen onena eta txarrena?

Onena... oso hiri lasaia dela. Txarrena, aldiz, guztiok ezagutzen dugula elkar.

Zeintzuk izan dira Gasteizek jasan-dako aldaketa nabarmenak azkeneko urteotan? Tranbia hiriko bizitza eraldatzen ari da. Gainera, Andre Maria Zuriaren plazan egingo dituzten aldaketak ez zaizkit batere gustatzen.

Bizikleta maiz erabiltzen duzu.

Bidegorria, errepidea edo espaloia?

Bidegorriaren aukera gutxitan dugu, baina, egotekotan bertatik. Bestela espaloitik jendea gainezka ez badago, eta azken aukera errepidea litzateke.

Gasteizen bizikletaren erabilera errazteko... Bidegorri gehiago egin beharko lirateke eta jendeak errespetatu beharko litzuke.

Gasteizko lekuri politena? "Maitale mozkorren bankuen" ingurua. Hau da, Aihotz Plazaren goialdean; Gaztetxearen aurreko plaza txiki hori.



Euskara, gaztelania, ingelesa... beste hizkuntzaren bat ikastekotan, zein?

Japoniera edo txinera. Munduaren jabe berriak bihurtzen ari dira txinatar eta japoniarrak. Hala ere, oso zaila iruditzen zait mota horretako hizkuntzaren bat kontrolatu ahal izatea.

Liburu bat? Askok irakurri ditut... bi esateko-tan..., 'Los pilares de la tierra' eta 'La ladrona de libros'. Ken Follet-en nobela eskolara eramaten nuen aukera nuenean irakurtzeko. Harrapatu egin ninduen.

Ken Follet-en omenez egindako estatua

gustuko duzu? Gehiegizkoa dela esango nuke.

Film bat? 'Seven'. Hiltzaile eta zoroen pelikula gustuko ditut.

Eta Brad Pitt? Nola ez zait ba gustatuko.

GEU aldizkaria ezagutzen zenuen? Bai, udatik hona ikusi izan dut gehienbat.

Musikazalea zara? Bai, hip-hop eta reggae-a entzuten dut gehienetan. Violadores del verso eta Tonton David ditut gogokoak.

Lan bila zabiltza..., non ikusten duzu zure burua etorkizunean?

Egia esan momentu honetan ez dut nire burua argitasunez ikusten inon. Gertatuko denaren zain nago.

Nola ikusten duzu Gasteizko lan panorama? Oso gaizki.

Bartzelonan, Madrilan, Bilbon... ikasi dudarekin bat egiten duen lan gehiago dago, baina hemen ez dakit zerbait aurkituko dudana.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Gauza gehiegik agian. Inkoherentziak ezin ditut jasan.

Amets bat? Bart, bahitu nautela egin dut amets, baina, ez galdetu zergatik...

Euskaraz bizi daiteke Gasteizen? Bakarrik euskaraz ez dut uste.

Iragana, gaur eguna ala etorkizuna? Gaur eguna. Iragana jada pasatu da eta etorkizuneko gerta daitekeena ezin daiteke jakin.

Olentzerok zer ekarri dizu aurten..., opariak ala ikatza? Aurten ona izan naizela uste dut. Hala eta guztiz ere, bi pijama eta eskularru pareka ekarri dizkit.

Zer eskatzen du herriak? Bakoitzak gauza ezberdinak eskatzen ditu. Horrelakoetan ezin da orokortu.

MAIATZ ALDIZKARIA

LITERATURA, AUSARDIA ETA EUSKARA

Literatur aldizkaria da Maiatz. Ipar Euskal Herriko idazleen biltoki eta babesleku izan den agerkariak euskarazko sorkuntzaren zutoinetako bat izaten jarraitzen du. Euskal Herri osoko aldizkaria izateko erronkarekin jaio zen aldizkari honek 26 urte beteko ditu laster.



luzien etxezaharreta (maiatz aldizkaria) eta nerea mujika (gerediaga elkarte) durango argizaiola sari banaketan

t. naroa cuesta a. argazki press

Otsail batean

1982ko otsailaren 12an argitaratu zen Maiatz aldizkariaren lehen alea, Baionan. Hauek izan ziren "jaio berriaren" aitzin solasak:

"Aldizkari bat, gurea. Gauza batzu, dene-tarik, euskaraz, lantuak. Gure literatura. Literatura, zertarako? Gure sendimenduak ez diton bakarrik pasa bainan bizi ditzagun. Maitasuna, lana, tristezia eta mendiak, esperantza eta gau baten zoriona, euskaraz. Gureak euskaraz direlakoan. Literatura gure-tako. Ez gauza hil batzu, ikerketa hotzetara-koak eta errautsez bete erakustokietarakoak. Literatura bizirako".

Ederrak benetan lehenengo hitzak. Aldiz, Maiatz aldizkariaren ernaldia luzea izan zen, tartean zailtasunak izan zirelarik. 1981eko maiatzaren 10ean hamar bat lagun bildu ziren. Hamarrak idazle, hamarrak euskaltzale, hamarrak berritzaile. Hamar lagunek grina bera zuten: barrunbea euskaraz hustea literatura oinarri.

Hasierako grina zehazte bidean, urte bereko azaroan berrogeita hamar bat idazle bildu ziren Baionan. Besteak beste, Manex Lanathua, Aurelia Arkotxa, Piarrez Xarriton, Luzien Etxezaharreta eta Itxaro Borda. Orduan sortu zen Maiatz elkarte. Bertan, aldizkaria-ren erditze eguna zehaztu zelarik.

Lehenengo alearen 500 kopiak Angeluko multikopista elektronikoz egin ziren, Etxegorri apaizaren etxean. Baionako fakultatean egin zuten aurkezpena.

Garaia

Euskal Herrian 70. hamarkadan haize berritzaileak ziren kultur

mugimenduen motor. Aldiz, Iparraldeko sortzaile askoren artean baztertuak gertatzen zirelako sentimendua zen nagusi. Horixe da Maiatz aldizkariaren sorreraren arrazoietakoa bat. "Gure eskualdetik euskarazko literaturari bizi, arnas eta nortasun baten ekartzea zen nahikaria, espazio bat irekiz euskararentzat, baliatuz ere hemengo hainbat lagunen idazkera aberatsak", diosku Maiatz aldizkari eta argitaletxeko zuzendari Luzien Etxezaharretak.

Orduko literaturak bizi zuen egoera aldatzeko aldarrikapenak nagusi ziren idazle anitzen artean. Hots, idazki zaharrak atzean utzi eta libre izateko beharra. Literaturaren zaharkitze horrekin ezadostasuna agerian utzi eta modernitatearen baloreak goratu nahi izan zituen proiektu honetan burubelarri aritu zen idazle taldeak. "Klerigo mundu batek bideratzen zituen gaiak eta formak aldatu eta berrituz, gaurkotasunaren gaiak erabiliz, euskalkien aberastun ahozkoak baliatuz, emakumeen idazkera plazaratuz" lortu zen Luzien Etxezaharretaren aburuz, literatur aldizkari berritzailea kaleratzea.

Esperimentu askoren laborategia

Ipar Euskal Herriko idazleen laborategia dela esan izan da behin baino gehiagotan. Espazio librea beraz, idazleek euren saioak egin ahal izateko. Argitalpenaren berrogeita bost aleei erreparatuz esperimentu askoren toki izan dela nabarmendu daiteke. Hala nola, hirurogei bat lagunen testuak plazaratu dira aldizkarian eta ohiko argitaletxeetara heltzen ez diren idazkiak argitara emateko aukera eman zaie idazle askori.

Poesiaren alorrean formula berri ugari aurki daitezke Maiatz aldizkarian. Sonetotik slam-aren mugetaraino. Prosa poetikoa, forma estetikoak, gai berriak..., nola erotismoa hala fikzioa. Euskalki ezberdinen muina ere bada Maiatz, horrela, Euskal Herri osoko idazleen agertoki bihurtu delarik mende laurden baten buruan. Poesia mistikoa, ironia eta antzezlanak ere jasotzen dira agerkari honen ibilbide luzean. Bestetik, itzulpenak ere badu lekua Maiatz literatur aldizkarian, mundu osoko poeten lanen itzulpenak argitaratu baitira. "Uste dugu

idazlea libre behar dela izan eta hori azaldu", dio Luzien Etxezaharretak. Idazleen lanak biltzeko biderik arruntena helbide elektronikoa dute: maiatz@caramail.com.

Argitalpena, etxearen sortzaile

Argitaletxe bilakatu zen Maiatz 1984 aldera, Itxaro Bordaren 'Bizitza nola badoan' izanik kaleratutako lehen poema liburua. Eskaera bati erantzuteko sortu zen Maiatz argitaletxea. Luzien Etxezaharretaren hitzetan, "liburua pertsonalizatuagoa da. Aldizkari esperimental-itxura batek jende bati ez zaiola atsegin, aldiz, pertsona baten lan bilduma, gainera eza gutzen duzun batena, errazago dela hurbiltzeko".

Ordutik, hirurogei liburu argitaratu dituzte. Gainera, gero eta proposamen gehiago heltzen zaizkie. "Jendea etortzen zaigu liburu baten argitaratzeko nahikariarekin, eta gero eta gehiago. Hala ere, beti erraten diogu idazten hasi den bati hobe dela aldizkari batean idazten hastea, hor aurkituko baitira argitaratzeko posibilitate ziurrak, talde baten begirada, beharrezko aholkuak", azaldu du Etxezaharretak.

Interesa eta kalitatea oinarri

Atzerriko idazleen lanak euskaratu ditu Maiatzek. Lanak aukeratzeko ezarritako irizpideak: interesa eta kalitatea. Hala ere, herrialde eta kultura baztertuenei atea gehiago ireki diete. Itzulpenarena idazleentzako ariketa aberasgarria den ustea dute Maiatz aldizkariako kideek.

Halaber, antzezlanak presentzia izan du aldizkarian. Ahozkoa eta idatzia biltzen dituen joko honek bizitasuna du egun ere Ipar Euskal Herrian. Luzien Etxezaharretaren arabera, "literatura eskola nagusi bat da Iparraldea eta premiazkoa da Piarres Larzabalen denboratik honera gertatzen diren Daniel Landart, Antton Luku, Mattin Irigoien, Gillome Irigoien edo Pantzo Hirigaraiaren lanei begiratzea. Hor euskara bizi, herrikoi eta aberatsa, Iparraldearen ispi-lu nagusi bat nabaritzen da, gainera





hemengo literatura tradizio aberatsetik datorrena”.



26 urteko bidaia egin du Maiatz literatur aldizkariak. Errail berdintsuei jarraitu dielarik bidean. “Independentzia ia osoan gabiltza, gastuak salketekin orekatzen ditugu, onespenez gehiago badugu, eta 25. urtemuga honen inguruan, Durangon eta beste tokietan izan dugun harrerak itxaropen hori ziurragoa bilakatzen digu. Aldaketak ez dira premiazkoak, iraupena ere azpimarratzekoa da, hasierako taldearena bereziki”, diosku Etxezaharretak.

Maiatz irakurtzeko leiho berria

Ibinagabeitia proiektuarekin Interneten ikusgai daude Maiatz aldizkariaren lehen hogeita hamaika aleak, <http://andima.armiar-ma.com> webgunean hain zuzen ere. Era berean, Maiatz aldizkariaren webgunea irekitzea dute hurrengo urratsa bertako idazleek. Baina Luzien Etxezaharretak azpimarratu bezala, “ez da ahantzi behar lehendabiziko urratsa dela paper eta arkatz baten eskuetan jasotzea. Horrek milaka urte ditu, idazkera humanitatearen aurre-
rapauso nagusi bat izan zen bizikidetzeta eta kulturarako. Beti baliagarria da”.

Zorionak Maiatz!

25. urteurrena zela eta, iragan maiatzean egun berezia antolatu zuten Baionan. Gainera, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan Argizaiola saria jaso zuen iaz Maiatz elkarteak. “Dena den, orain, apustua da Maiatz 46 eta 47. zenbakien plazaratzea 2008an; Saran, Idazleen Biltzarrean, Bazko astelehenean, hiru liburu berriren azaltzea; eta maiatzean gure ‘Literatura Solasaldien’ eratzea”, dio Etxezaharretak■



GEU
publizitatea:
idogetu@ya.com

IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • ☎ 945 430 073

AL
Auzo Lagun
ERKOP

ESKOLA ETA IKASTOLA
EZBERDINETARAKO
BEGIRALEAK BEHAR DITUGU

- * Euskara beharrezkoa da.
- * Egunean 3-4 ordu.
- * Kurrikuluma:

rrhh.urb@auzolagun.com

ABTX'08

2005ean behiak jezteko aulki batek, ejem, tornadoa sortu zuen BECen, eta bere zurrunbiloa, Ilunbetik pasa ostean, Araban sartu berri daukagu. Tornado berezia da zeren animalia espezie berezi bati baino ez baitio eragiten, buruan txoritxo asko eduki eta euren etxeokak nazkatu samar dituzten horiei, bertsolariei alegia.

t. arabako bertsozale elkarte

Animalia gizarajo guztien larridura aurpegiak ikusteko, jo www.bertsozale.com helbidera.

Zurrunbilo hori erakargarri egiten duena da apurka-apurka guztiak irensten joango dela eta bat baino ez duela bizi-rik utziko. Bere barruko txoritxoak egokien hezituta ditue-na.

Urtarrilean Errexala elkartearen egin zen sailkapen fasearen ondoren, hau izango da 2008ko txapelketaren egutegia:



Kanporaketak

Otsailak 23, Laudion, Basalarrina elkartearen

Iñaki Viñaspre, Juan Mari Juaristi, Izar Mendiguren, Serapio Lopez, Ander Solozabal eta Ekaitz Samaniego

Otsailak 29, Lantziegoko Luis R upategian

Asier Otamendi, Zigor Enbeita, Ruben Sanchez, Felipe Zelaieta, Alberto Martinez "Betto", eta Jagoba Apaolaza

Martxoak 1, Agurainen

Oihane Perea, Manex Agirre, Rikardo Gonzalez de Durana, Andere Arriolabengoa, Iker Agirre eta Beñat Goitia

Hiru kanporaketak 20:00etan hasiko diren afari goxoen ondoren izango dira. Izena emateko deitu 675707971 telefonora edota sartu helbide honetan: araba@bertsozale.com

Finalerdiak

Martxoak 9, Gopegin, 17:00etan Kultur etxean

Martxoak 16, Aramaion, 17:00 Kultur etxean

Finala

Apirilak 5, Gasteizen, 17:00etan Principal antzokian

NESKAK, MUTILAK ETA BIDEOJOKOAK

TESTUA: NEREA SANCHO SEXOLOGOA ETA PSIKOLOGOA

NESKA ALA MUTILA IZAN, BIDEOJOKOEKIN GOZATZERA BULTZATU NAHI ZAITUZTEGU; BEGIRADA KRITIKO BATEZ HURBILTZERA ETA HAIEN INGURUKO ZUEN IRITZI PROPIOA SORTZERA. BIDEOJOKOEN ARTEAN ONDO AUKERATZEA ONA IZAN DAITEKE!

Gertatu zaizu horrelakorik?

- “Neska batek partida batean irabazten badit, beste mutilek iseka egiten didate, neska hori jokoan ni baino ordu gehiagotan ibilia edo zaharragoa izan daitekeen arren. Zergatik?”.
- “Mutil bati partida batean irabazten badiot, ez dute onartzen bera baino iaioagoa naizenik; zortea besterik ez dela izan esaten didate. Horrek amorru handia ematen dit”.
- “Neska naiz eta ‘mutilen’ bideojokoetan jolastea atsegin dudalako, gainerako neskek gaizki begiratzen didate, ‘marimutila’ banintz bezala”.
- “Joko berrietan mutilek jokatzeko dute, eta ni zaharretan jokatzearekin konformitzen naiz; horrela eroso sentitzen naiz”.
- “‘Neskentzako’ bideojokoak (arrosa koloreko kaxan datozen horiek) makillaje, moda eta antzeko gaiei buruzkoak izaten dira. Neska naiz, eta ez ditut atsegin”.
- “Nire nebak ez dit gure bideojokoa uzten bera nekatu arte. Badirudi ‘mutilena’ dela. Gurasoek ez didate jaramonik egiten, kexatzen naizenean. Eskolako patioarekin gauza bera gertatzen zen; mutilek hartzen zuten ia beti toki osoa”.

Jabetu zara?

Bideojokoek neskez eta mutilez ematen duten irudia eta haiei ematen dizkieten



zereginak oso desorekatuak izan ohi dira; estereotipatuak, sexistak hitz batean. Horrek, bizitza errealean, eragin txarra izan dezake sexuen arteko harremanetan. Horretaz zenbat eta kontzienteago izan, orduan eta gutxiago eragingo digu. Nahiz eta azken aldiaren enpresa multinazionalak emakumeentzat propio pentsaturiko produktuak prestatu dituzten —diru sarrerak handitzeko, noski—, erabiltzaile gehienak gizonezkoak izan dira eta dira oraindik ere. Gainera, jokoen diseina-

tzaileak ere gizonezkoak izaten dira normalean.

Zure bideojokoetako emakume birtualak nolakoak dira?

Gehienetan edo askotan:

- Produktuaren erakargarri gisa erabiltzen dira; ez protagonista aktibo gisa?
- Gizonezkoekiko dependenteak dira?
- Bigarren mailako zeregina dute? Menperatutakoarena, agian?
- Pasiboki jokatzeko dute?

SEXESALDIA

Woody Allen-en esaldia: “Sexua barrerik egin gabe egin daitekeen gauzarik dibertigarriena da.”

SEXEGUNA

Otsailak 14. Sexu Osasunaren Europako Eguna

Martxoak 8: Emakumeen Nazioarteko Eguna.

SEXIDEIA

Bat baino gehiago garenerako: Elkar ukitu gabe pasatzeko egun bat hitzartu: eguna eta ordua. Bitartean elkar zirikatu. Epea amaitzen denean, gogo handiagoa izango duzue.

Bakarka ala konpainian: Ispiluen aurrean izan harremanak. Ispiluekin jolastu.

SEXKUBIDEA

Autonomia sexual, osotasun sexual eta gorputz sexualaren segurtasun eskubidea. Norberaren bizitza sexualaren alorrean erabaki autonomoak hartzeko ahalmena jasotzen du eskubide honek; beti ere pertsonaren eta gizartearen etikan kokatuta. Geure gorputzaren kontrola eta gozamina ere jasotzen ditu eskubide honek, tortura, ebaketak eta bortizkeria baztertuta.

- Biktimak dira? Bahitutakoak dira, adibidez, eta gizon batek askatu behar ditu?
 - Euren desirak erreprimitzen dituzte, eta besteenak gailentzen dira?
 - Apaingarri hutsak dira?
 - Gorputz erakargarriak dituzte —bular handiak, ipurdi borobilak, gerri estu-estuak...—? Eredu estetiko ez-osasuntsu edo/eta irrealak dituzte?
 - Gizonak izango balira bezala jokutzen dute?
 - Haien janzkera bat dator egiten ari direnarekin?
 - Gorputzaren erotikotasuna baloratzen janzkera daramate?
 - Gazteak, irribarretsuak, zuriak, altuak, ederrak eta 'probokatzailak' dira?
- Zein zeregin dute emakume birtual hauek? Posible da, bideojokoetan, gizonak ere rol horiek izatea? Ongi baloratuko genituzke, orduan? Zer irudituko litzaizuke? Zer eskatzen diegu neskei? Zer, mutilei? Gure espektatibak errealistak dira?
- Bi sexuen aniztasuna onartzeko prest gaude?



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

‘Egunkaria’ itxi zuten

Otsailaren 20an, bost urte beteko dira Guardia Zibilak *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuenetik, Juan del Olmo epailearen aginduz. Argazkian, guardia zibilak Andoaingo Martin Ugalde parkean.

SUSTRAI COLINAK JARRITAKO BERTSOAK

MAILA HORTAKO TRISKANTZARIK NAHIZ
EZIN ZITEKEEN ITXARO...
NAHIZ KARRIKARA ATERA GINEN
INOIZ BAINO SUTSUAGO...
DEKRETUZ ITXI ZUTEN, ORDEA,
IZAN ZELAKOAN NAGO,
LO EGOTEAK DAKARREN BESTE
AMETS-GAIZTO BAT GEHIAGO.

ORAIN JAKINIK ADISKIDEAK
EPAITUKO DITUZTELA,
TEL AVIV-EKO AUZITEGIAN
PALESTINARRAK BEZELA.
JUIZIOA EZ DENEZ AUZIA,
SENTENTZIA DENA DELA,
EZ DAUKAT INORK ESAN BEHARRIK
ERRUGABEAK DIRELA.

gaztezulo.com



sexua·gaupasa·egun pasa·musika·sarezulo·hitzorduak·zine·ikasi bai, baina·mundua·fotografikoak·literatura·teilatupea·protagonistak·agenda·fotomaton·salerosketak·albiste bitxiak·etxeok·komikiak

MUSika

KALE KANTOIETAN (2. edizioa)

ika

KULTURika 07-08ko ekimenen barruan kokatu behar dugu egitasmo hau. Badaramatzagu urte batzuk otsaila inguruan kontzertu desberdinak antolatzen. Helburuak, eszenatokia, eta taldeak aldatu egin izan ditugu urte batetik bestera. Iaz, ordea, lan taldean tarte berezia eskaini genion puntu horiek aztertzeari eta hizketaldi luzeen emaitza izan genuen MUSika KALE KANTOIETAN egitasmoa.

Egitasmo honek bi helburu bete nahi ditu: batetik, euskaltegiatiko ikasleak ikasgeletatik atera eta lagun giroan euskal musikara hurbiltzea. Bestetik, Gasteizen euskal kulturari bere txokoa eskaini ohi dioten tabernetekin bat egin, eta bertara hurbiltzeko joera dutenei gure ekarpena egitea, eta aldi berean IKA ezagutaraztea.

Egitasmo honi oihartzun zabalagoa emateko, Gasteizen euskal musikako nobedadeak uhinetan barrena zabaltzen aritzen diren 3KORTXEAKo

-Hala Bedi irratiko euskarazko musika saioa- kideekin harremanetan jarri ginen. Ideia gustatu eta elkarrekin jarri genuen martxan proiektu hau.

Lehendabiziko edizioak gure aurrikuspen guztiak hautsi zituen. Hainbeste urtetan bila ibilitako formula topatu eta bete-betean asmatu genuelako sentsazioarekin geratu ginen antolatzaileok: IKAKo ikasleak ez ezik, jende gehiago ere hurbildu zen Alde Zaharreko kantoietako tabernetara, eta giro bero eta hurbila sortu zen kontzertuetan; IKA eta Hala Bediko 3kortxearen arteko elkarlana ere oso positiboki baloratu genuen; bestalde, egitasmoaren izenarekin eta irudiarekin ere asmatu genuela iruditu zitzaigun.

Horregatik, aurtengoan MUSika KALE KANTOIETAN egitasmoaren 2. edizioarekin gatozkizue. Kontzertuak, iaz bezala, Gasteizko Alde Zaharreko kantoietako tabernetan izango dira: Hala Bedi tabernan, Parral tabernan eta Gora tabernan.



EGITARAUA

otsailaren 10ean, igandea, Hala Bedi tabernan, PETTI
otsailaren 12an, asteartea, Parral tabernan, MAK
otsailaren 14an, osteguna, Gora tabernan, SAGARROI
20:30

3 HITZORDU, 3 HARRIBITXI

Musika Kale Kantoietan ekimenari esker, egungo euskal musikaren unibertsoko hiru proposamen interesgarrik egingo digute bisita otsailean barrena. Musikazale orok euskal musikaren hiru estilo oso desberdin dastatzeko gonbita erakargarria: Petti, Beratik, rockaren sustraian eta ahots atzitzailaren ordezkaria; MAK, Iparraldetik, hip-hop sotilaren mezulariak; eta Sagarroi, eskarmentu eta uztarketa gizatiarraz beteriko soinu-kutxa. Horratx euren inguruko datu batzuk:

estitxu breñas



PETTI... ON

Juan Luis Pérez mitxelenari txikitan petti ezizena jarri zioten: "Juan Luis Pettisuis" errima - "suis" = petti.

"folk basati" izenda genezakeen estiloaren aitzindari dugu. hamasei urte zituela ekin zion musikaren bidari, bidasoa bailarako noise hole rockarroll taldeko gitarrajole moduan. zuzeneko kontzertu ugari eskaini zituen talde honekin euskal herriko luze zabalean, eta baita inguruko lurraldeetan ere. taldea desegin eta gero, musika esperimentalagoa egiten zuen zup taldeko kantari izan zen, 1997an bakarka jotzen hasia erabaki zuen arte. orduan harribitxia agertu zen euskal herriko musika panoraman: kantari berezia, gitarrajole fina... bluesman distiratsu eta grinatsu baten aurrean geunden. bizitzeko esperientziaren interpretazio poetiko bezain basatia egiten zuen artista. bere eginbeharra, beti mugan ibili diren musikarien eritmoetan sustraitzen zen. bere existentzialismotik zirrara sortarazten duten kantuen sortzailea. eraginez hitz egitekotan Billy Bragg, Tim Buckley edo Nick Drake aipatu behar, Nick Cave edo Tom Waits-en ondoan. ezin aurkitu euskal herriko kantautoreekiko antzekotasunik, gure eszenan bakarra baita bai kantatzeko modu ilun-trinkoan zein gitarra zarrastatzeko moduan. petti, azken urteotan euskal herriko bakarlari original horietako bat. (myspace)

cd-ak

amets bat (gaztelupeko hotsak, 1999)
arrazoiak (gaztelupeko hotsak, 2001)
etxekeko uzta (gaztelupeko hotsak, 2002)
anari ta petti (metak, 2003)
on (gaztelupeko hotsak, 2007)

azken lanak, on-ek, kritika onak
[hemeroteca / www.hotsak.com]

argia 2007-10-19

petti, piztu da piztia

"ez dago ongi nik erratea, baina disko ona iruditzen zaidalako jarri diot on (...) mundutik desagertu nintzen, musika bazter utzi nuen ikuspegi profesional batetik, lagunekin antolatutako kontzertu batzuk baino ez ditut eman denbora honetan, baina inoiz ez diot musika egiteari utzi. orain berriz itzuli naiz (...) gauzak gaizki egin nituen... drogen kontuan sartu nintzen eta... orduan ez zen arazoa, drogekin jolasten baduzu beti galtzen ateratzen zara. orain bertan etapa hori pasatu dut eta beste bat hasi dut (...) orain ohartu naiz adiskide gutxiago dutudala orduan baino, laguntzat nituen batzuk jada ez dira lagun, ez didatelako demostratu, baina ditudan horiek merezi dute egin nien kantua (adiskideak)".

diario vasco 2007-12-22

nueva cocina vasca

aizu 2007-abendua

interprete eta konpositorearen nortasuna

mondo sonoro 2007-abendua

plazerra

el país 2008-01-04

petti rompe con los estereotipos del cantautor euskaldun



SAGARROI

Baleike. Sagarroiren disko onena dela diote. Oraingoan ere, Amparanoia, The Solanos eta Andoni Delirium-en kolaborazioekin dator Iñigo Muguruzaren taldea. Eta emakumezko ahots berri bat, Miren Gaztañagarena. 10 kantu oinarri eta kolorez beterik: cumbia-ska, ska reggae, mediterranean kutsuko "ragga-runba"... Kantu osatuak hasieratik bukaera bitartera, soinueta eta letretan. Baleike, posible da: gizarte gizatiarragoa; bakardadea, heriotza, kapitalismo eta kontsumismo bortitza menperatzea... Posible da, behinik behin saiatu. Baleike.

cd-ak

meatzaldea (metak, 2001)
euria ari duela (metak, 2003)
toulouse (metak, 2004)
baleike (kasba music, 2006)



MAK

Musika Armatu Komando edo MAK (Mikrofon Addikt Klan ohia)

-estiloa: rap / hip-hop

-sorrera: 2003an ziburu inguruko herrietan

-cd-ak:

suari darion kea (2005)

suaren garai, errauts erreka (2007)

SUAREN GARAI, ERRAUTS ERREKAI

-hitzak: globalizazioa, bakoitzaren kontraesanak, aginteriaren guduak, adierazpenak...

-kolaborazioak: sorkun, bad sound system-eko moro, qnb, fat fish, jon maia, aire ahizpak ('denok ala inor ez' kantua, hip hop+euskal musika/dantzaren arteko uztarketa irudikatzen duen bideo klip batekin).

-euskal eraginak nabarmen dira: xenpelarrek XIX. mendean idatzi zituen bertsoen berr moldatzeaz gain, mak taldeak lurdes iriondo eta haren lan artistikoa omentzen ditu 'hitzak' kantuen bitartez.

-hip-hop egiturari jazz funk kolore bat ere erantzen zaio lan honetan.



ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa. 945 28 28 39
01002 GASTEIZ

PARRAL
TABERNA
Egurditan, asteleneetik ostiralerat
JANTOKI
BEGETARIANO
SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOLA 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 68 33

ARTEPAN
aniztasuna, kalitatea eta zerbitzua
norbanako eta enpresen eskura
Jesus guridi, 2 - tl. 945 27 88 88
boulevard m.g. - tl. 945 06 88 88
vitoria-gasteiz - www.artepan.com

Euskara, gure lurralde libre bakarra

araba@aralar.net • Kanpokale berria 4, behea • 945252631



ZURE HARATEGIAK





XABIER RIZPEOLEA
harategia
Florida Azoka 2 eta 3
Tl. 945 13 24 48
Abastos Azoka 2 eta 3
Tl. 945 26 78 97

Jose Luis GARMENDIA
Harategia-urdaitegia
Andaluzia kalea 13
Tl. 945 28 79 42
GASTEIZ

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

Obren egite eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa
"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ



ERROTA

HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz kalea, 1 Tl. 945 213 390 - Faxa: 945 213 390
01012 GASTEIZ e-posta: errotadental@euskalnet.net

bar • restaurante •
albéniz
Errege atea, 9 • GASTEIZ
Tl: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

MARRAZKIAK • KOADROAK
MOLDURAK LAMINAK
zurbeltz
Madalena kalea, 2 • Tl: 945 13 27 20

Confecciones
Pinedo
Jantziak
San Antonio, 11 • Tl. 945 23 39 90
H. Fournier, 15 • Tl. 945 15 53 39

HEGOALDE
Euskaltegia
Matrikula zaitetz !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

Udaberria
euskaltegia
• Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat • Musika eskola
- Ume eta gaztetxoentzat • Dantza
Uruguai kalea, 9 - Tl: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tl: 945 22 34 33

Euskadik behar zaitu



TOBACCO ROAD: BLUES-AREN KONDAIRA ZUZENEAN



tobacco road-en taldekideak:
txitxo amili eta antonio azazeta

Blues musikari askoren bizipenak jasotzen dituen antzezlan berritzailea eta didaktikoa ikusteko aukera dugu Tobacco Road musika talde gasteiztarraren eskutik. Esklabotzaren historiarekin ematen zaio hasiera obrari, AEBetara morroiak eraman zituztenean. Hortik aurrera, euren kultura eta sustraiak mantentzeko premiarekin blues-aren sorreraren ingurukoak azaltzen dira.

t. ainhoa arriaga

a. edorta sanz & tobacco road

Chicagora iristen direnean, 50. hamarkadan, musikan gauzak asko aldatu zirela ohartarazten dute publikoa, gitarrak adibidez, elektrikoak izaten hasten dira eta orduantxe sortzen da Chicagoko Blues estiloa. Aurrekoa baino blues estilo hiritarragoa izango zena. Testuinguru honetan hasten da rock and rolla eta amaitu egiten da 'Blues-aren historia'.


Hiru pertsonaia nagusik antzezten dute obra, Tobacco Road-en taldekideek alegia. Txitxo Amili narratzailea da, zintzoena. Antonio Azazetak clown-aren papera egiten du, barregarriarena, zoliarena. Eta Juanjo Calderon eszenatokiko teknikoa dugu, mimi-karen bitartez beste biek esaten dutena laguntzen duelarik.

"Guri txikitan ikustea gustatu zitzaigukeena egin nahi izan dugu, blues-a ulertzen hasi", azaltzen digu Txitxok. "Soinu desberdinez, musikaz, historiaz... asko ikasi dugu obra egin ahal izateko", gaineratzen du. Emanaldian entzuten den soinua, monoformatuan doa, estereoa joan beharrean eta afinazioari dagokionean ere, aspaldi jotzen zen bezala egiten dute, izan ere, Antonioren gitarra sol-en baitago. "40. hamarkadako gitarra bat ere sartzen dugu", diosku Txitxok.

10 urtez Tobacco Road

Tobacco Road blues banda gasteiztarra, hiru kidek osatzen dute. "Txitxo artistak, Antonio maisuak, eta Juanjo teknikariak", blues-aren hiru zale amorratuk, alegia. Orain dela hamar urte erabaki zuten elkarrekin jotzen hastea. Antonio, Obligaciones taldeko partaidea zen eta Txitxo aldiz, Smiley Cigarettes-en zebilen. "Momentu horretan ezin genuen gustatzen zitzaiguna gure bandekin jo eta horregatik biak elkartu eta Tobacco Road sortu genuen", azaltzen digute taldekideek.

Azken diskoak 'In cold blood' du izena, Truman Cappote-ren liburu batean oinarrituta



dagoena. Ez dute promoziorik egin, hori ez baita euren helburuen barruan sartzen. "Guretzat jotzen dugu, ez dugu publikoarengan pentsatzen. Guri gustatzen zaizkigun abestiak jotzen ditugu", dio Txitxok.

Gaur egun jotzen dutenaren % 70 eurena da, baina bertsiozaleak ere badirela onartzen dute. Robert Johnson, Muddy Waters, John

Lee Hooker, Otis Redding, Ray Charles edo Blind Lemon Jeffersonen abestiak berreskuratu egin dituzte, beste askoren artean.

Zaitasunak zaitasun, 10 urte egin dituzte elkarrekin eta oso argi dute orain dela "blues-aren soinua, sorreraren zergatia, izan dituen gizarte eta politika eraginak... ulertzen hasi" diren momentua.



“BLUES-A SENTIMENDU BAT DA”

Tobacco Road taldeko Juanjo eta Txixorekin bildu gara Gasteizko Hedegile kaleko taberna enblematikoenetako batean. Ke artean, garagardoak mahai gainean, musikaz girotuta, solasaldian aritu gara blues-az, bizitzaz, euren kontzertuez,...

Zaletasunagatik jotzen hasi eta jarraitzen duzue, ez blues musikaz bizitzen saiatzeko. Erabaki propioa edo aurrean zailtasun handiak dauden seinale?

Gauza bat lana da, beste bat bizitza, eta beste gauza bat oso desberdina blues-a da. Sentimendu bat da. Blues-etik bizitzen saiatzea gezur bat litzateke. Bizitza txar bat. Hori da hain zuzen antzezlanean kontatzen duguna.

Zeri buruz aritzen dira zuen kantak?

Bizipen pertsonalez, neskez, gizarte gaiez, drogez, alkoholaz, bizitzaren arazoez..., lan egin beharraz, aurrera egin beharraz... Bizitza puta hau aurrera ateratzeko egin behar den esfortzuaz. Baina beti ironia puntu bat, dibertsio puntu bat sartzen saiatzen gara. Blues-a tristea da, bai, malenkoniatsua, batez ere jaio zen uneagatik. Baina sortu zenean, nahiz eta gauza tristeez hitz egiten zuen, ironia handia zegoen.

Ingelesez dira zuen abesti guztiak?

Gehienak ingelesez dira, baina gutxika-gutxika gaztelerazkoak ere sartu ditugu gure erreperatorioan. Antzezlanean bi abesti ditugu gazteleraz, umeek ere abestien esanahia ulertu, gozatu eta abestu dezaten. Behin, Jon Maiairekin lankidetzan euskaraz abestu genuen, primeran irten zen.

Umeentzat sortutako antzezlanak dugu honakoa, baina helduei ere egokitzeko lanetan zaudete. Zein da publiko zailagoa, umeak edo helduak?

Umeentzako zerbait sortzen baduzu eta funtzionatzen badu, nagusientzat ere funtzionatuko du, nahiz eta zenbait eraldaketa egin behar izango diren, noski. Umeak aspertzen badira, hitz egin eta zarata ateratzen dute. Helduak formaltasun bat gordetzen du, nahiz eta gustatu ez. Obra nagusientzat egokitzeko lanean dihardugu, baina argi duguna da gure lekua taberna dela, *basurdeentzako* taberna batean jotzen dago gure tokia. Kea, zarata, hezetasuna, hotza, neskak... Hori da benetan gustatzen zaiguna. Hori da blues-a.

Nolakoa da Tobacco Road-en zuzenekoak?

Egoera lasaia sortzen da, entzutekoa. Ez da dantzarako edota zaratarako mementoa. Bilatzen dena publikoaren lasaitasuna eta erlajazioa da, esateko duguna patxadaz entzutea. Gu etxean bezala sentitzen garen bezala, gure publikoa ere etxean bezala sentitzea bilatzen dugu.

Etorkizunari begira, zer?

Momentuz, antzerki obrak borobildu nahi ditugu, bai umeentzat dena, bai eta gazteentzat egokituko duguna ere. Bestalde, denbora gutxi barru beste disko bat grabatuko dugu. Gitarra akustikoekin grabaturiko diskoa izango da. Gure hurrengo emanaldi didaktikoa, gazteei zuzendutakoa, Aldabe gizarte etxean izango da martxoaren 8an ■

TSUNEAKI KUROSAWA, BIDAIRI JAPONIARRA:




“Bidaia honetan ezagututako guztiek gauza bera bilatzen dute, zoriontasuna”

“Arratsalde on”, dio kafetegiko atea ireki eta elkar ezagutu dugunean. Euskaraz dakien hitz gutxietako bat da. Asko ikasteko astirik ez baitu izan Gasteizen izan den hamar egunetan. Gazteleraz, ordea, ondo defendatzen da japoniar gazte hau; hiru astetan ikastaro trinkoa egin Guatemalan eta ostean Hego Ameriketatik bidaiatuz praktikan jarri baitzuen. Hiru urte eta zortzi hilabete daramatza Tsuneaki Kurosawak mundua bizikletaz ezagutzen. Munduari buelta emateko asmoz 2004ko maiatzaren 17an ateratu zen bere herritik eta egun 40.000 kilometro egin dituela susmoa du. “Neurgailua bitan lapurtu didate eta”, dio irribarretsu eta lasai.

t. josune veleaz de mendizabal
a. edorta sanz & lontxo

Egun hogeita bost urte ditu Kurok (izen honekin aurkezten baitu bere burua) eta nerabea zelarik otu zitzaion munduari buelta ematea. Horregatik lanean aritu zen Estatu Batuetarako hegazkina ordaintzea lortu zuenera arte. Hantxe hasi zuen Kurok bere bidaiak. Ordutik 38 herrialde baina gehiago ezagutu ditu. Afrikatik dator Kuro. Estatu espainolean Jerez, Granada eta Madril egin ditu, eta azkenik, Euskal Herrira heldu da. Lontxoren etxera, Arbulura (Araba) alegia.

Lontxo ere bizikleta bidaiaria da eta Kuro lehen aldiz Afrikatik zebilela ezagutu zuen. Namibiako desertuan izan zela dio Lontxok. “Beti da sorpresa handia topo egitea bizikletaz bidaiatzen duen jendearekin, are gehiago jende ona bada”, baieztatu du gasteiztarrek. Hamar bat egun eman zituzten elkarrekin bidaiatzen. Ostean erruta ezberdinei jarraituz banandu ziren baina bideak berriro elkartu zituen pare bat alditan. Senegal eta Marokon, hain justu ere. Azken topagunea ordea, Araba izan dute. Kurok hamar egun pasatu ditu Lontxoren etxean eta Gasteiz ezagutu du, baita Bilbo ere. Arabako hiriburutik zer erakarri



duen bereziki galdetu eta "balkoiak", dio lehen gauza. Ostean zerrenda gehitu du, "hiria eta jendea; eta herrietako harritzko etxeak, baita mendiak ere". Lontxok zehazten du egun hauetan Opakua eta Arroita inguruetik ibili direla. Kuro Zornotzan ere egon da, "baserriak" aipatzen ditu hori gogoratzean.

Ikastetxez ikastetxe ibili da bere bidaiaren nondik norakoen inguruko galderei erantzuten. Oroitzapen berezirik duen galdetzean isilik geratu da minutu batzuez (hizkuntzaren ezaguera eskasak dakarren trabagatik dela pentsa daiteke, baina gainontzeko galderei emandako erantzun geldoak bezain aberatsek ez dute zalantzarako izpirik uzten, zer da orduan?). Lontxok lagundu dio. "Gaur Mendizabala institutuan egon gara eta antzeko zerbait galdetu diote; berak esan du emozioak hitze-kin azaltzea zaila zaiola. Eta honakoa esan du: Saharan egon zenean egunero altxatzean eguzkia irteten ikusten zuela eta eguna bukatzean eguzkia ezkutatzeko ere, egun batean eta hurrengoan ere...", azaldu du Lontxok. Buruarekin baieztatu du Kurok.

Orain arteko bidaiatik zer da nabarmenduko zenukeena?

Bakarrik beste herrialdeetako jendea nola bizi den ikusteko merezi du bidaia hau egitea.

Zerk deitu dizu arreta gehien?

Batzuk diru gutxirekin bizi dira; beste batzuk, ordea, diru askorekin. Baina guztiek gauza bera bilatzen dute, zoriontasuna.

Baita zuk ere?

Bai, nik ere bai.

Baina munduari bizikletaz buelta eman ahal izatea zorte handia da. Zer esaten dizute lagunek?

Japonian utzitako lagunek bai diotela zortea dela, baina beraiek ez lukete egingo. Ni baino nagusiagoa den anaia dut eta bere bizimodua nirearekin alderatuta oso ezberdina da. "Ez dizut ulertzen", esaten dit.

Euskal Herrian ere badira helmuga ezberdinak izaki, bizikletaz bidaiari abiatzen direnak. Abentura horien filmina eta argazkien inguruan biltzea gustatu ohi zaigu gainontzekoari. Zuk ere argazkiak egin al dituzu?

Ez, bakar batzuk. Baina pertsonalak dira. Gainera argazki makina lapurtu egin zidaten. Hasieran gehiago atera nituen baina gero utzi nion egiteari... (egunkaria idazten duela, "oso egunkari zehatza" idazten duela komentatzen du Lontxok).

Agian noizbait liburu formatuan argitaratuko duzun egutegia?

Ez, ez... (dio burua leku batetik bestera mugitzen, irribarretsu)... pertsonala da...

Zer ondorio atera duzu orain artean bidaia honetatik?

...(denbora hartzen du) Japoniatik abiatu nintzenean pertsona ona nintzela pentsatzen nuen baina osteraz ez naizela konturatu naiz...

Ez zarela pertsona ona? Zergatik diozu hori? (Lontxok ere harrituta egin dio galdera, "Ez dut ulertzen ondorio hori Kuro"...)

Konturatu naiz itxia naizela eta hobetu beharra daukadala...

Oso gaiztoa ere ez zara izango bidaiari adiskideak egin dituzunean; bidaia honetan eginiko lagunak betiko al direla uste duzu?

bidaia

Bai. Topaketa hauek bereziak dira. Sentimendu bera dugun bidaia-riak gara. Esperientzia bera bizitzen ari garenak, edo bizi izan dugunak, eta honek elkarren arteko ezagutza eta komunikazioa errazten ditu.

Lau urte baino gehiago emango dituzu munduan zehar. Denbora horretan guztian ez duzu etxea bisitatu... Behin Japoniara bueltan zer egingo duzu? Zer-nolako bizitza planteatzen duzu?

Dudan ideia praktikoa honakoa da (barre egiten du): lan egin bizi ahal izateko, gaztelera ikasi, akaso frantsesa ere, naturatik gertu bizitzea, nekazaria izatea eta nagusia naizenean berriro ateratzea.

Pozik egongo dira etxekoak bueltatzen zarelako, ezta?

Ama bueltatzeko irrikitan dago (baieztatzen du buruz).


Bere tea amaitu eta kafetegitik atera gara. Haizea eta hotza dago kanpoan. Pixka bat ibiltzen gara. Isiltasunean. Leporik gabeko gizakiak, burua txamarran ezkutuan daramagu. Agurtzeko ordua iritsi da. "Zorte on zure bidaian Kuro, zoriontasuna aurki dezazula ahalik eta azkarren", esaten diot. Irribarre egiten du eta burua makurtzen du japoniar agurtzeko erara■



MENDIA OPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTI OPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33
Gasteiz

eskaintzak 08/02/29ra arte balio du



JESUS M^a GONZALEZ DE ZARATE

ARTEAREN HISTORIAN KATEDRADUNA

'MATIAS JOSE MAESTRO (1766-1835). VITO-
RIANO OLVIDADO EN LA MEMORIA DE LA CIU-
DAD' LIBURUAREN EGILEA

“Matias Jose Maestro gure ondarea da, baina Gasteizko memorian ahaztuta dago”

Penatuta mintzatu da Jesus Maria Gonzalez de Zarate EHuko Artearen Historian katedraduna, XVIII. mendeak utzitako itzal handiko gasteiztar bati inolako garrantzirik ez diotelako eman sekula hiriko agintariek. Haiek egin ez duten lana, ordea, bere esku hartu du Gonzalez de Zaratek, eta Matias Jose Maestoren (1766-1835) bizitzari buruzko liburu osatua kaleratu berri du. Arkitekto, eskultore, margolari, musikari eta idazle paregabea izandakoari omenaldi xumea egin nahi izan dio lan honekin. Hori baino gehiago ere lortu du, ordea: hiriak bere memoria berreskuratzeko aldarria baita liburua.

t. edurne begiristain


a. edorta sanz

Matias Jose Maestrori buruzko lan monografikoa egiteko ideia kasualitatez sortu zen, ezta?

Bai. Duela ia 15 urte hona ikastera etorrirako Peruko gazte baten ahotik jakin nuen aurreneko aldiz Maestoren inguruan. XVIII. mendean Liman egondako pertsonariak garrantzitsuena izan zela esan zidan, eta horrek jakin-mina piztu zidan. Bere bizitza ikertzeari ekin nion orduan. Jaiotza-agiria lortu nuen segituan, eta jakin nuen Gasteizko Santa Maria katedralean bataiatu zutela, 1766an. Eliz artxiboetan nahiz zibiletan ikertzen jarraitu nuen, eta familiari buruzko datuak eskuratu. Jose Maestro eta Ignacia Alegriaren semea izan zen Matias Jose, eta Zapatari kalean bizi zen. Merkataritzatik bizi zen familia hura, eta Bartolome Uriarte garaiko merkatar handienaren lagunak ziren. Haren etxean lan egin zuen Matias Josek, kontulari gisa. Diego Gardoki merkataria eta politikari inportantea ezagutu zuela ere jakin nuen, eta haren bidez Amerikara joan zela. Maestrok Liman bizi izan zuen bere bizitzaren zatirik handiena. Bertan egon zela egiaztatzen duen lehen dokumentua gitarrarako musika libre-ta da. Gitarrarako Amerikan egin den lehen agiria da, eta berak sinatuta dago. Liburuan erantsi dut, osorik.

Arkitektoa, eskultorea, margolaria, musikaria eta idazlea izan zen. Artelan garrantzitsu ugari egin zituen Liman.

Neoklasizismoa berak eraman zuen Amerikara. Barrokoarekin amaitu zuen, eta horren ordeztasun klasizismoa ezarri zuen Maestrok. Garbiketa zentzuzkoa egin zuen han. Obra asko burutu zituen: besteren artean, Printzearen eskola, Medizina fakultatea, Limako Katedraleko dorreen konponketa, Limako Elizako Aldare nagusia eta Hilerria egin zituen. Egun Humanitatearen monumentua den hilerria, Ameriketako lehen kanposantua, berea da. Aitzindari bat izan zen. Baita buru argi bat ere. Eskultura, pintura eta musikarekin egin-



dako lan artistikoa ez ezik, idazlea ere izan zen. Tamalez galdu den eliza-tratatua egin zuen. Artean aitzindaria ezezik, Maestro iraultzailea ere izan zela esan daiteke, izan ere, Justo Antonio de Olagibelek Madrildik Gasteizera eramandako arkitektura tratatuez baliatu zen lan egiteko. Olagibelek ekarritako teoria eraman zuen Maestrok Limara, eta han hankaz gora jarri zuen arkitektura dena. Disenatzaile aparta izan zen, jenio bat.

bat eliz ohol-tza, hilerria, margolan ikaragarriak... Lan gehienak liburuan biltzen saiatu naiz. Arkitekturan erabilitako estiloari buruz nabarmenduko nuke diseinu aldetik egin zuen lana. Edertasuna da Maestoren lana definitzen duen hitza. Espazioari eta estrukturarari bainoago, trazari ematen zion garrantzia. Jenio bat zen, teoria guztia eskura zuelako. Ameriketako Olagibel bat izan zen, duda barik.

hemengo ondare ez da bate-re babesten

Liburuan diozu Matias Jose Maestro gizon ona izan zela. Zer azpimarratuko zenuke bere pertsonaren inguruan?

Denek diote gizon ona izan zela, besteen alde dena eman zuela. Langile nekaezina izan zela. Artelan ugari utzi ditu Liman: 16

Itzal handiko artista eta pertsonaia izanagatik, pobre eta bakarrik hil zen, Liman.

Bere anaia Clementeri aulki zahar bat baino ez zion utzi herentzia moduan. Besterik ez zuen. Bera hil eta hogeitabat urteren buruan Limako hiria jabetu zen zein pertsona garrantzitsua izan zen Matias Jose Maestro. Eta haren omenez prozesio handi bat antolatu zuten Bakardadearen elizatik bere izena duen hilerri-raino.

Perun badakite nor izan zen Matias Jose Maestro, eta, besteak beste, haren izena jarri diote kale bati Liman.




Gasteizen, ordea, omenezko plaka bat ere ez du. Zergatik?

Oso gauza bitxia da herri honetan gertatzen dena: iragana galdu izanak bost axola die boterean daudenei. Hiriko ondarea osasuntsu dagoela diote, bai, osasuntsu egongo da garbi dagoelako, baina hiltzorian dago. Matias Jose Maestro ondarea da, baina Gasteizko memorian ahaztuta dago. Hemengo ondarea ez da batere babesten. Kulturen ikertu egiten den oro berraztertu egin behar da, baina hiri honetan ez da halakorik egiten, ez da ezer berrikusten. Ezjakintasunaren isla argia da, zeroren azpiko jakinduria dute. Penagarria da. Globalizazioak irentsita gaude, baina hain ergelak dira gure agintariak, ez direla gai gure ondarea munduko plazan jartzeko ere, ez diote jaramonik egiten.

Maestrori buruzko ikerketa egiteko urteak eman dituzu. Nolakoa izan da prozesua? Noren laguntza izan duzu?

Zazpi urte baino gehiago eman ditut ikerketa lanetan. Besteak beste, Arabako Artxibo Historikotik zein Indietako eta Sevillako Artxiboetatik lortu dut informazioa; Limako Sedes Sapientiae Unibertsitateko irakasle Jose Antonio Benitok ere asko lagundu dit, batez ere argazkiak eta Maestroren testamendua bidali dizkidalako. Ignacio Ullar bertako notarioaren laguntza ere estimagarria izan da, baita hemengo irakasle batzuen ere. Pertsona askok lagundu dute liburu honetan. Maestrori buruz esan den guztia bilduta dago liburuan, dokumentuez beteta dago, historia liburu bat baita ■



SANTA MARIA KEDRALAREN PROGRAMA IKONOGRAFIKOA EZBAIAN

Gasteizko Santa Maria Katedralaren programa ikonografikoari buruzko ikerketa ere egin du Jesus Gonzalez de Zarate irakasleak, eta Santa Maria Katedralako Fundazioaren aginduz tinpanoan egindako programa ez dela zuzena ondorioztatu du. Berrikusketa egin behar dela uste du, eta egiten ez bada, "akats larria" izango dela, eta Europar Fundazioa "barregarri" geratuko dela ziur da. "Programa ez da zuzena, eta uste dut Gasteizek ez duela merezi hori argitara ematea". Aitortu egin digu bere iritzia jakiteko Fundaziotik interesik agertu ez izanak mindu egin duela. Baina areago penatu du jakiteak Fundazioaren asmoa dela kanpotik aditu talde bat ekartzea, haien iritzia jakiteko. "Mindu egiten nau esaten denean EHUK ez diola hiriari begiratzen, hemen egunero gauza berriak ikertzen ari garenean; gu ikonografian eta artearen historian egunero ari gara gauza berriak ezagutzera ematen... Baina deitzen ez badigute...". Katedralaren ikonografiari buruz landutako ikerketa kaleratu arte ez du ustezko akats horiei buruzko zehaztasunetan sartu nahi. Hori bai, aurreratu digu ikonografiari buruzko irakurketa osoa "berritu" egin beharko luketela.

Gasteiz euskalkien sorguneetako bat?

t. kike fdz. de pinedo

Makina bat urte darama Koldo Zuazok euskalkiak ikertzen. Berari zor diogu euskalkien sailkapen berria, eta dozena erdi liburu gutxienez. Orain dela gutxi hitzaldi eta artikuluko interesgarri batean euskalkien sorrera eta sorguneak hartu ditu hizpide, eta ezustekorik ekarri du. Hasteko, euskalkiak antzinako ziren ustea eta euren mugak aspaldiko leinuenekin eta elizbarrutienekin bat zetozen ideia baztertzeko du. Izan ere, Mendebalean -Araba, Bizkaia eta Deba ibarrean- karistiarren eta gero Armentia eta Kalagorriko eliz barrutiaren eremuan antzeko euskara zutela ematen badu ere, bestetan kontraesanak ikusten baititu.

Bizkaiko euskara Nafarroa eta Iparraldekoetik bereizten duena, eta baliteke XI-XII. mendeetan eman izana, hots, Nafarroak lurralde hauek galitzen dituenean. Bigarren etena, berriz, Iparraldekoa Hegoaldetik bereizten duena da, eta bat datorrena Nafarroako erresumaren hausturarekin XVI. mendean. Mende honetarako finkatuta leudeke gaur ezagutzen ditugun euskalkiak

Eta euskalkien sorguneak? Elena Barrena historialaria izan omen da euskalkien sorburuaz ardurtzen lehena, eta hiru gune bereizi zituen, hirurak mendietan kokatuak: Gorbeia, Aralar eta Saioa (Nafarroako iparraldean).



Bestalde, Mitxelena euskalkiak VI. mendekoak baino gerokoak zirela uste zuen bi arrazoi emanez: berdintasun handia dagoela euskalki guztietan, eta berrikuntza berdin ugari dagoela denetan -adibidez, latinetik etorritako hitzak modu berean egokitu direla euskalki guztietan-. K. Zuazo bat dator honekin eta hirugarren arrazoia gehitzen du, alegia, benetan bereziak diren euskalkiak bazterretakoak direla.

Eta noizkoak dira euskalkiak? Euskararen egitura-ri begiratuta bi eten edo zatitze oso esanguratsuak ikusten ditu: Lehena, Araba, Gipuzkoa eta


Zuazo, ordea, ez dator bat: "ez zait iruditzen mendietan dagoenik euskalkien hasiera, hiriguneetan baizik. **Bost gune ikusten ditut nik; antzina-koak dira horietako bi eta oraintsuagokoak gainerako hirurak**". Eta jarraitzen du: "Antzinako gune-etako bata Nafarroan agertzen da; ziurrenena bertako hiri nagusia: Iruñean. Bigarrena, berriz, mendebalean; hori ere ziurrenena bertako hiri nagusia: Gasteizen."

Iruñearen eragin eremuak, Nafarroaz gainera, Lapurdi, Nafarroa Beherea, Gipuzkoa gehiena eta, ahulago, Arabako ekialdea hartu zituela ematen du. Gasteizen eragin eremua, berriz, Araba berta-

ra, Bizkaira, Deba ibarrera, Errioxara eta, ahulago, Urolaldera, Goierri eta Nafarroako mendebaleko hiru ibarretara -Burunda, Ameskoak eta Lana- hedatu zen". Berriagoak diren beste hirurak, Zuberoan, Gipuzkoan -Tolosa eta Donostia bitartean-, eta Bizkaiko erdigunean kokatzen ditu.

Sorgune hauetatik harrigarriena Gasteiz da, duda barik. Baina Zuazok esaten digunez, Erdi Aroan ekonomia eta merkataritza gune handia izateaz gain, mendebaleko euskararen eremua Nafarroaraino edo Goierri heltzea askoz hobeto ulertzen da Gasteiztik abiatuta Bizkaitik baino. Eskertzekoa benetan Koldo Zuazoren ekarpen berri hau. Zuhurtziaz idatzita badago ere (litekeena..), sendoa eta ausarta denik ezin uka. Egia esan, gizarte eta hizkuntza aldaketak errazago ulertzen ditugu guk ere ekonomiari, gizarte harremanei eta hirigunei erreparatuta.

Oraingoan ere, topikoen gainetik, Gasteizek zein Arabak beren lekua erakusten digute euskaren historian■



Gasteizen eragin esparrua Koldo Zuazoren arabera



- Zurezko teilatua
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pab.
Goiaín Industrialdea
Tl/Fxo: 945 465 921
Tl. 627 417 747
info@egur.es
www.egur.es
01171 Legutiano (Araba)



**eusko
alkartasuna**

www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea



**Gazte
Abertzaleak**

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g
zaramaga

Euskeraz Araban BAI

Iturrieta Sagardotegia



AZKEN DENBORALDIA

ostegunetik
igandera
irekita

gainontzeko
egunetan
erreserbarekin

Hramaio. Erraga auzoa, z/g
Tl.: 945 445 385



publizitatea:

idoge@ya.com

688 61 98 37

945 22 21 53



m. iñigo saraola



Gasteiz, 1908-2008

t. erlantz urtasun antzano. historialaria

Badakizue telebistan "botatzen" dituzten txorakeriekin denbora galdu beharrean lagun batzuk nahikoa arraroak garela eta, erraterako, paper zaharrak arakatzaren gure bizitzaren taupadak "alferrik" xahutzea nahiago izaten dugula.

Honatz, adibide garbia. Izan ere, "perla" hau heme-roteka batean irakurtzen ahal den "El Pensamiento Navarro" egunkarian kausitu bainuen. Egunkari hura, oroitarazi beharra dago, urte luzez zabaldu zen Hego Euskal Herrian, Nafarroa Garaian batez ere, Iruñean baitzuen egoitza nagusia. Karlista peto-petoa, euskaltzalea, Franco diktadoreak hamaika aldiz itxiarazi bazuen ere, hondar "transizio" urteotan karrikaratu zuen azken alea.

Harirat. "4 de enero, noticias: encarcelamiento de Ramón Leniz". Hemen, mamia: "El día de Año Nuevo del presente 1908 se celebró en el Centro Vasco de Vitoria una velada, que acabó de mala manera como puede verse por lo siguiente que comunican de dicha ciudad: "Pronunció un discurso el distinguido joven bilbaíno y conocido orador don Ramón Leniz. Trató de la etimología de la palabra "nación" en su relación con Vasconia, viniendo a establecer la conclusión de que el país vascongado fue en el pasado un país independiente. El delegado del gobernador le atajó amenazando con suspender la velada si el orador continuaba por ese camino. El señor Leniz continuó su discurso é hizo una excursión por la historia, manifestando que la ley abolitoria de los fueros de 1876 era la causa de que enviáramos nuestros hijos al ejército á derramar su sangre por una patria que no era la nuestra. El delegado suspendió entonces la velada y detuvo al señor Leniz, á quien trasladó á presencia del gobernador. Este dispuso que el señor Leniz fuera conducido a la cárcel. Además ordenó la clausura del Centro".

Hiru urte lehenago Gasteizko apezpikuak arabar umeei "nombre vasco" bataioetan jartzea debekatu zuen. Ehun urte igaro dira, naturaltasun osoz. Orduko espainiar erregea egungoaren aita txi zen. Hausnarketa zure esku, irakurle maitea ■

proposamenak

cd

'hotsak dantzan'

dantza baltza azpizigilua. gaztelupeko hotsak. hotsak.com / danbaka.com



gaztelupeko hotsak diskoetxeak bere ibilbidean osatu duen katalogoko lehen bilduma da 'hotsak dantzan'. jimmy bidaurreta musikari donostiarrak (javi pez, makala, ortophonk) egin ditu bernahasketak, kantuak eta elektronika uztartuta, dantza baltza bilduma estreinatuz.

tapia eta leturia, uek, txuma murugarren, karidadeko benta, rafa rueda, morau, bide ertzean, kokein, petti, sixty sexers, deabruak teilatuetan eta maider saralegi dira kantuak nahasteko aukeratu dituzten biktimetako batzuk, guztiak soraluzeko diskoetxearekin lan egin izan dutenak.

liburua

zer da zalaparta hau?

moritz petz / itzultzaileak: lola erkizia, inazio mujika iraola

marrazkiak: amélie jackowski

albumak koloretan (3 urtetik gora)-2006

alberdania.net



martin trikua musikaren ederraz jabetu da. kantari hasi da, baina, zoritxarrez, inork ez du bere abesteko modua atsegin. urretxindorraren eskolan ikasten saiatu den arren, alferrik izan da dena. inork ez dio martini kantuan entzun nahi, inork ez du berarekin abestu nahi koruan; otsoak, beleak eta oreinak beste inork ez. baina hauek ere hala-holako abeslariak dira, ordea. aurki konturatuko dira denek ez dutela berdin pentsatzen, eta badela beti norbait beren abesteko eraz gustatua.

zinema

zinema euskaraz

Otsail eta martxoan barrena, gauekoak&orhum zine klubaren eskutik. gauekoak.com

otsailak 1: koruko mutilak
otsailak 8: igande odoltsua
otsailak 15: obaba
otsailak 22: aukera gazteak
martxoak 7: obsesio baten irudia
martxoak 14: beckham izan nahi nuke



20:00etan, luis de ajuria aretoan
(sarrera irekia eserlekuak bete arte)

literatura dosi txikitan

Literaturaren irudia

t. mikel ayerbe



Irudia zaindu egin behar dela esan zidan aurrekoan ezagun batek. Neurtu egin behar dela norberaren irudia. Ken Follet-en omenez eraiki duten estatuen inaugurazioaren biharamunean esan zizkidan hitzok.

Dakizuenetz, idazlea *Pillars of the earth* ('Los pilares de la tierra') nobela esanguratsuenaren bigarren zatiko pasarte batzuk idazteko Gasteizko Santa Maria Katedraleko zutabeei gertaturikoan oinarritu da. Dakizuenetz, Ken Folletek Gasteizko Santa Maria Katedrala aukeratu zuen *World without end* ('Un mundo sin fin') liburuaren aurkezpenarako. Eta dakizuenetz, Gasteizko Santa Maria Katedraleko Fundazioak, esker gisa, estatua bat eraiki dio Santa Maria Katedralaren magalean.

Ken Folletek eta Santa Maria Katedraleko Fundazioak neurritz kanpo zaindu zuten irudia: egunkari, telebista, sareko eztabaida, gisa honetako zutabe eta bestelako txutxumutxuetan ezinbestean azaldu da kontua. Muntai horrek guztiak *Bienvenido Mr. Marshall* gogorarazten ziola esan zidan lagun batek, eta hori ez dela Gasteizen bizi.

Izan ere, batzuetan literaturak indar hori izan dezake. Liburu bateko pasarteengatik liburu salmenta eta merchandising-a harrigarriki ugarituko duen aurkezpen ekitaldia antolatzea kasu; eta gero, turistak etortzen direnerako, horren lekukotza emango duen estatua eraikitzen da, bada-epada, gertaturikoa ez dezala inork zalantzan jarri.

Eta irudia zaindu behar den honetan, hona hemen beste proposamen bat: datorren urteko Durangoko azokan Ken Folleten azken liburuari *stand* propio bat eskaintzea, ingelesezko jatorrizkoaren eta gaztelaniazko itzulpenaren ondoren, ahal bada liburuaren euskarazko itzulpenarekin. Baina azken hori gutxienezkoa dela dirudi. Durangoko azken edizioan liburu salduenak gaztelaniazko liburuak izan direla kontuan hartzen badugu behintzat... ■

geusex

geusex@emaize.com


Argitu nahi duzun sexualitateari buruzko zalantzarik ala jakin-minik al duzu?

Hilerik hile zure galderak erantzungo dizkizugu. Sexualitatearen inguruko arlo desberdinei buruz galde diezagukezu.

Anima zaitetz eta bidali hona zure galderak:

geusex@emaize.com.

Emaize Sexologia Zentroko profesionalak erantzungo dizute.



emaize sexologia zentroa

gizon eta emakumeentzako arreta


bueno monreal I-behea / 01001 gasteiz / 945265896 / www.emaize.com

Kaixo. Zenbaitetan tanpoia jartzen saiatu naiz, batik bat udarako oso aproposa delako, baina saiatu naizen bakoitzean ezinezkoa izan zait. Aholkuren bat emango didazue, mesedez?

Ezinbestekoa da lasai egotea bagina inguruko gi-harrak estu ez egoteko. Horretarako, leku lasaia aukeratu eta ispiluekin alua begira dezakezu. Ez da beharrezkoa hilekoarekin egotea. Baginako sarrera aurkitu eta atzamar punta sar dezakezu; baselina edo irristakorra den zerbaitekin errazago suertatzen da.

Hau lortutakoan, odol gehien jariatzen zaizun hilekoaren egunean, aplikadorea duen tanpoi txiki batekin frogatu.

Praktikatuz ikasten da, gehienoi egin zaigu zaila lehenengo aldietan.



31 urteko mutila naiz. Estuturik nabil nire neskarekin larrua jotzen bitan saiatu naizelako eta nahiz eta oso bero egon, sartzeko unea heltzean zakila gutzitiz bigundu zitzaidan. Zer egin behar dut berriro ez gertatzeko?

Gertatu zaizuna nahiko arrunta da. Larrua jotzea ez da azterketa bat, eta helburua elkarrekin esperientzia positiboa izatea bada, leku eta une lasaiak aukeratu, elkar laztanduz esperimentatu, bestearen gorputza hobe ezagutzeko, eta atsegin duzuen elkarri adierazi. Elkarrekin erabaki dezakezue sarketa praktikatu duzuen ala ez. Hitz egin. Baiezkoa izatekotan, babes neurriak erabili. Koitoa ez da aukera bakarra, ezta hoberena ere: ahozko sexua, elkar masturbatzea,... aukera paregabeak dituzue.



errezeta

OGI TORRADAK

- Ogi lehorra (20 xerra)
- 2 litro esne
- 200 gramo azukre
- Urrin ezberdinak aukeran (Kanela-zotz bat. Zitroin azala. Laranja azala. Anis haziak. Bainilina).



diocesanas-mendizorrotza
ostalaritza eskola

Elaborazio prozesua

Urrin guztiekin esnea irakin 5 minutuz. Irakin ondoren sutatik kendu, azukrea gehitu eta epeltzen utzi.

20 ogi xerrak, epeldutako esne urrinduan busti eta rustidera batean hozten utzi (hobe da esnea torradetan bertan guztiz hoztea edo egun batetik bestera torrada bustiak rustidera berean hozkailuan gordetzea), esnea ongi xurga dezan eta torrada bera ez apurtzeko.

Torradak arrautzatik pasa eta olio askorekin frijitu (buelta kontu handiz eman behar zaie torradei, apurtu ez daitezen). Bi aldeetatik gorritzen utzi, arrautzek utzitako "bizarrak" kendu eta paper xurgatzailean xukatu. Hoztuta daudenean, kanelaz nahastutako azukrez hautsezatu.

Iradokizuna

Soberan gelditu zaigun torrada bustitzeko erabilitako esne urrindua pixka bat berotu eta berarekin ingeles saltsa bat egin, torrada aipatu saltsa honekin zerbitzatzeko.

Momentuan kontsumitu behar dira edo, asko jota, frijitu eta egun bat pasa eta gero ■



ZINEMASTEIA

febrero
otsaila

25



marzo
martxoak

1

vitoria-gasteiz.2008

ZINEMARIK ONENAREKIN HITZORDUA DUZU

Hemendik lasterrera KREAren.

HIRU, BI, BAT, EGIN!

LABURRAK - HAURRENTZAKO EMANALDIAK - EZUSTEKOAK



KREA

EXPRESIÓN CONTEMPORÁNEA

WWW.KREARED.COM

Caja Vital  Vital Kutxa

KREA. EXPRESIÓN CONTEMPORÁNEA • POSTAS 17. 01004 • VITORIA-GASTEIZ • TEL / FAX +34 945 150 147

Colabora • Laguntzailea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa